

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko martxoaren 5a • IV. urtea • 146. zenbakia • DOAN BANATZEKO



ALBERTO AGIRREAZALDEGI

"Etorkin berbak baino gehiago, horren irakurketa interesatuak sortu du zalaparta" /7



Goienka2a
Filosofia eta Kant,
HUHEZIren Literatura
Asteko protagonista

ASTEKO GAIA: 4.000 ETXEK ZUNTZ OPTIKOZ IKUSI AHAL IZANGO DUTE

GOITB, Euskaltelen eskaintzaren barne

Astelehenetik aurrera, Goiena Telebista Euskaltelen zuntz optiko zerbitzuaren bidez jaso ahal izango dute Debagoieneko beze-

ro guztiek. Izan ere, atzo, eguena, sinatu zuten hitzarmena Goienak eta Euskaltelek. Ibarrean 4.000 etxe dira Euskaltelen zuntz

optiko zerbitzuaren bezero. Horiek guztiek ezin izan dute orain arte GOITB kable bidez jaso. /2-3



Goiena kooperatibak eta Euskaltelek aste honetan sinatu dute lankidetzaz hitzarmena.

XABIER URZELAI

Alderdi guztietako politikoak egon dira Debagoieneko herrietan

Bergarako Ekimena, EA, EAJ, Aralar-Zutik, Ezker Batua, PSE-EE eta PP. Alderdi guztietako ordezkariak egon dira aste barruan gure ibarrean, datorren martxoaren 14an egingo diren hauteskundeetarako botoa eskatzeko. Alderdi batzuk kalez kale ibili dira boto eske, eta beste batzuek, ordea, aretoak aukeratu dituzte euren hauteskunde programa aurkezteko. Aste barruan izan dira

ekitaldi gehienak, baina astebururako eta datorren asterako ere antolatu dituzte.

Hauteskunde kanpainan buru-belarri gaudela-eta, ohiko moduak erabiltzen dihardute alderdi politikoek botoa eskatzeko: hitzaldiak, aurkezpenak, prentsaurrekoak, megafonia, propaganda eta hainbat opariren banaketa kalez kale... Gauzak ez dira horrenbeste aldatu. /5

DEBAGOIENA

Oraingo zapatuan egingo du Elkarrik sinadura batzea

Joan den zapatarako deitu zuen Elkarrik sinadura batze eguna, baina eguraldi txarrak behartuta, bertan behera utzi zuen, Oñatin izan ezik (877 sinadura batu zituzten). Hala, bihar, zapatua, egingo du sinadura batzea, eta mahaiak jarriko ditu, goiz eta arratsaldean, sinadurok jasotzeko. Degaboienerako herri guztietan jarriko ditu Elkarrik sinadurak jasotzeko mahaiak. /6

OÑATI

'Txiki txoko' eraikinean, haur eskola publikoa

Joan den otsailean onartu zuen Oñatiko Udalak haur eskola publikoa ezartzea eta partzuegoan sartzea. Haur eskola publikoaren zerbitzua eskaintzeko, bi lokal ikusten zituen egokiak Udalak: Errekalde herri eskola eta lehengo Txiki txoko eraikina. Azkenean, eta Hezkuntza batzordearen irizpenak kontuan hartuta, Txiki txoko eraikina egokitzera erabaki du. /6

Eraman Focus bat 12.200 eurogatik eta gura baduzu

EZ ORDAINDU 2005era arte

Horrez gain, hilabete honetan
Ford Focus TDCI 100 ZP 5 ate, 15.400 eurogatik.
aire girotua, ABS, albotiko aire-zakuski, lasterketa faroak eta lastri CDA.

Hil amalerara arte bakarrik

Goizteko pentsatuak, irauteko eginak

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

IKER

SUKALDEAK: Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43
BAINUAK: Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42

ETA ORAIN ONATIN ERE BAI:
San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

ARAMAIO

Aurten, aurreneko aldiz, Gazte Eguna ospatuko dute

Aramaioko zenbait gazte buru-belarri lanean ibili da egitasmo berezi eta berri bat antolatu nahian: Aramaioko Gazte Eguna. Oro har, herriko eta inguruko gazteei zuzendutako eguna izatea nahi dute. Eta jai ederra egiteko moduko ekitaldiak antolatu dituzte. Bertso-saioa, trikitilariak, kontzertuak... egingo dituzte /6

GOITB zuntz bidez, astelehenetik

■ Goienak eta Euskaltelek adostu berri dute GOITB Euskaltelen eskaintzan sartzea

LEIRE KORTABARRIA

Luze joan dira elkarriketak eta arazoan konponketak, baina GOITB Debagoieneko telebista badago, azkenean, Euskaltelen zuntz optiko bidezko telebista eskaintzan. Izan ere, Goiena komunikazio zerbitzu kooperatibak eta Euskaltelek atzo, eguna, sinatu zuten hori baieztatzen duen hitzarmena. Horrek esan nahi du Debagoienean Euskaltelen bezero diren eta zuntz optiko zerbitzua kontratatuta duten herritar guztiek 4.000 etxebizitza, gaur egun GOITB zuntz bidez ikusi ahal izango dutela hemendik aurrera. Hain zuzen ere, astelehenetik aurrera izango da hori

posible. Euskaltelen aurreikuspenak dira Debagoienean 20.800 etxebizitzara iristea; datorren urtean, 17.130 etxebizitza ingurura.

Goienak oso iritzi ona azaldu du akordio horren inguruan, eta ez da gutxiagorako: izan ere, aspalditik erakutsi zuen Euskaltelen eskaintzarekin bat egiteko interesa. Goienako zuzendari nagusi Inazio Arregik zera adierazi digu: "Oso aurrerapauso garrantzitsua da guretako; izan ere, zuntz optikoa geroago eta etxe gehiagora iristen da, eta GOITBrendako ezinbestekoa zen eskaintzaren barruan egotea".

Euskalteleko Mikel Astorkiza arduradunak, bestalde, honako esan digu: "Uhin bidez

GOITB jasotzeko arazoak zituzten lekuetarako konponbidea izango da. Era berean, zuntz bidezko telebista seinalea orain arte jasotzen zena baino kalitate hobekoa izango da".

Orain arte, Euskaltelek normaltasunez eskaini du zuntz bidezko zerbitzua —telefonoa,

Internet eta telebista barne—, baina kontratatu duten etxeek GOITB ikusteko aukera galtzen zuten. Izan ere, GOITB uhinez ere hedatzen da —telebista kate generalistak bezala—, eta, kablea kontratatzen zuten etxeek, uhin bidez inongo telebista seinale jasotzeko aukera galtzen zuten. Hitzarmena sinatu eta azken lanak egin ondoren, ordea, arazo hori konponduta geldituko da.

GINARRIZKO ESKAINTZAN

Euskaltelek ibarreko herri handienetan —Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan— eginda dauka zuntz optiko instalazioa, eta gero eta etxe gehiagotan kontratatu dute zerbitzu hori. Urte bukaerarako, zuntz optikoa Gipuzkoako 158.000 etxetan egotea nahi du Euskaltelek; horietariko asko, Debagoienean. Hortik aurrera, Euskaltelen eskaintza hori ibar osoan —Antzuolan, Elgetan, Aramaion eta Leintz Gatzagan— ere hedatzea faltako litzateke, Debagoien osoan GOITB zuntz bidez ikusi ahal izateko.

GOITBren seinalea *Euskaltel Leihoa* izeneko zerbitzuan egongo da. Egin beharreko instalazio teknikoak doan dira; gero, hileko kuota jakin bat kobratzen die erabiltzaileei. Zerbitzu horrek telefonoa, Internet eta telebista hartzen ditu, baina, era berean, telebista kate kopuru bat hartzea doan da.

Telebista analogiko —ez digital— kopuru jakin bat, hortaz, oinarritzko zerbitzuan doa, eta hor sartzen da GOITB. Seinalea hartzeko, Euskaltelen bezeroek S11 kanala sintonizatu beharko dute (231.25MHz). Hain zuzen ere, Natura delako katearen jarraian dago. Horrek esan nahi du Debagoienean Euskaltelen zuntz optikoa kontratatuta duen edozeinek jaso ahal izango duela GOITBren seinalea, oinarritzko zerbitzuaz gainera beste ezer ordaindu barik.

EUSKARAREKIN KONPROMISOA

Aste honetako hitzarmenarekin, horrenbestez, elkarriketa eta irtenbide bilaketa asko ekarri dituen ibilbide bat bukatuko da, eta Goienak eta Euskaltelek euren elkarlanean urrats gehiago emateko prest egongo dira. Hain zuzen ere, Goiena 2002ko uztailean hasi zen zuntz optikak zekartzan aukera berriak aztertzen, eta bere seinalea hor sartzea lortzeko ahaleginetan hasi zen.

Euskaltelek, bestalde, betidanik azaldu zuen konpromisoa euskarazko komunikabideak sustatze aldera, eta, hortaz, GOITB bere eskaintzaren barne sartzea denbora kontua zen. Goienak ere hala ulertu zuen hori lehen unetik. Izan ere, Euskaltelek gaztelaniaz eta beste hizkuntza batzuetan emititzen zuten Estatuko eta beste herri batzuetako telebistak

Zuntz optikoa duten debagoiendarrok astelehenetik jasoko dute GOITB, S11 katean




Eseri eta erlaxatu

Munduko erosoan direnez, Stressless-ko besaulkiek eta sofek erabateko eta berehalako atseden sententzia eskaintzen dizute. Eseri eta berehala, guztiz erlaxatuta sentituko zara eta lasai-lasai egongo zara. Plus Sistema™ eskusiboari esker, Stressless-ko produktuak zure gorputzera primeran egokituko dira, bai atseden aktiboko zein etzandako posizioan. Ezaugarri berezi horrek benetako atsedengune bihurtzen du Stressless.



ERLAXA ZAITEZ, ONENAREN ESQUETAN ZAUDE

Noche y Día
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24



GOITB ETA BESTE 18 TELEBISTA KATE

'Leihoa', bezero guztiendako oinarritzko eskaintza

Euskaltel Leihoa da oinarritzko paketea. Euskaltelen telefono zerbitzua ez zutenei, 90,15 euroko alta kuota kobratuko zaie; besteei, ezer ez. Hileko kuota 12,95 euro da. Prezio horregatik, telefono eta Internet zerbitzuaz gain, honako telebista kateak jasoko dira: GOITB, TeleDonosti, Localia, ETB1 eta 2; TVE1, La2; Tele5; Antena3; Canal+; Promocional Euskaltel; BBC World; Bloomberg; Euronews; Natura; EHS; TV5; eta CNBC Europe. Argibide gehiago 1717 telefonoan duzue.

UHING BIDEZ, ORAIN ARTE BEZALA

GOITB Antzuolara eraman nahi dute Udalak eta Goienak

Kablea kontratatuta ez duten debagoiendarrek orain arte bezala jasotzen jarraituko dute GOITBren seinalea, hau da, uhin bidez, eta Goienak lanean dihardu ibar osora seinalea hedatzeko. Hori da, hain zuzen ere, Antzuolaren kasua; izan ere, han oraindik ez da GOITB ikusten, Udalak eta Goienak ahalegin handiak egiten jarraitzen duten arren. Eusko Jaurlaritzak hainbat akordio bete behar ditu lehenengo Udalarekin, eta gero lanean aurrera jarraitu ahal izango da.

eskaintzen zituen; baita Gipuzkoako bi lekuko telebista kate ere, baina euskara hutsean emititzen zuen telebista bakarrenetako bat, Goiena Telebista, eskaintzatik kanpo geratzen zen.


Lorpen hau behin eta berriro atzeratu dutenak arazo teknikoak izan dira, batik bat. Izan ere, Arrasaten du bere egoitza GOITBk, eta seinalea handik hartu eta Euskaltelen nodo edo gunera kable bidez eramateko arazo urbanistiko batzuk zeuden.

Euskaltelek eman zuen azken epea 2004. hasiera ingurua izan zen GOITB eskaintzan txertatzeko.

ZUNTZ OPTIKOA

Zuntz optikoa da Informazio Gizarteak eskura ipintzen dituen zerbitzu eta komunikabide asko garatzeko eta jasotzeko modu bat. Euskaltelek honakoa dio: "Zuntz optikoa beste teknologia batzuen gainetik dago, ikusentzunezkoak, telefonia eta Internetarako sarbidea bitarteko bakar batean eskaintzen dituelako". Bezeroak zerbitzu horiek guztiak enpresa edo hornitzaile bakar batekin kontrata ditzake.

Euskaltelen iritziz, zuntz optikoak abantaila handiak dakartza telebista seinalea garraiatzeari dagokionez; izan ere, "interferentzia elektrikoek ez diote eragiten". Astelehenetik aurrera, GOITB ere baldintza horietan jasoko dute ibarreko 4.000 etxek.



Atzo, eguna, sinatu zuten lankidetzaren hitzarmena Euskalteleko eta Goienako arduradunek, aurrerantzean GOITB kablez ere ikus ahal izateko.

XABIER URZELAI

OIHANE AGIRRE / GOITB-KO ZUZENDARIA

"Euskaltelen oinarrizko paketean dago GOITB"

Oihane Agirre GOITBko arduradunak eman dizkigu hitzarmen horren nondik norakoaren azalpen gehiago.

GOITBk aspalditik nahi zuen Euskaltelen eskaintzan sartu. Zein izan da arazoa?

Arazorik handiena izan da zuntz optikoa bera Arrasateko GOITBren egoitzara eramateko zailtasunak. Hain zuzen ere, gure egoitza leku berezian dago, erreka gainean dago eraikita, eta horrek hainbat zailtasun ekarri ditu. Azkenean, bidean zanga bat ireki behar izan dute eta beste hainbat moldaketa egin. Eguntan ibili dira lanak egiten.

Behin zailtasun hori gaindituta, zein izan da hurrengo pausoa?

Madriatik teknikari batzuk etorri dira eta zuntzari aparailu berezi bat egokitu diote. Horrek egingo duena da GOITBren seinalea hartu eta Euskaltelek Zamudion duen egoitzara eraman. Handik seinalea berriro etorriko da Debagoienara eta Euskaltelen bezeroen etxeetara.

Zein herritara hedatuko da GOITBren seinalea Euskaltelen bidez?

Euskaltelek Debagoieneko herri handienetan du sartuta zuntza: Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Oñatin. Hortaz, herri horietan Eus-

kaltelen bezero direnek eta zuntz bidezko telebista seinalea hartzen dutenek jasoko dute GOITBren seinalea. Antzuolara, Elgetara eta Leintz Gatzagara, oraingoz, ez da Euskaltelen zuntz optikoa iristen.

Euskaltelen zuntz optiko zerbitzua duten guztiak izango dute, hortaz, GOITB ikusteko aukera?

Euskaltelek doan egiten du instalazioa, eta oinarrizko zerbitzu batzuk eskaintzen ditu, *Euskaltel leihoa* izenekoak. Oinarrizko pakete horretan daude bi telefono hartune —bata telefonorako eta bestea Internetarako— eta telebista hartune bat. Telebista kateak hartzea auke-



Oihane Agirre.

rakoa da, baina bezero gehienek erabiltzen dute aukera hori. GOITB oinarrizko pakete horretan doanez, ez da gehigarrikerik ordaindu behar izango seinalea hartzeko. Oinarrizko paketean, 19 telebista kate eskaintzen ditu Euskaltelek; tartean, Donostiako bi lekuko kate eta geurea.

Zein da aldaketa honen abantailarik handiena?

GOITBren seinalea zuntz optikoaren bidez jasoko den bezala, fenomeno meteorologikoen eraginek kanpo geratzen da. Hau da: ekaitzak badaude, edo tximistak... Horrek ez dio telebista seinaleari eragingo. Kalitate osoz ikusi ahal izango da GOITB kasu horietan ere.

**TOLDOS
LECE C/B**

**Eguzkiari aurre egiten diogu
inork baino hobeto**

Kataide Industrialdea 14 Musakola • ARRASATE • Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45
Mallabierna auzoa 6 • IURRETA • Bizkaia • Tel.: 94 681 76 19

**Carrión
música, s.a.**

- Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura

**KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.**

EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34



Eskoriatzako HUHEZIKo Fakultatean aurkeztu dute lankidetzan oinarritutako Truke programa.

GOIENKARIA

Lankidetzan oinarritutako Truke programa egingo dute martxoan

Afrikatik, Amerikatik eta Asiatik datoz partaideak

OIHANA ELORZA

Mundukide Fundazioak eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatuta dute martxoan egingo duten Truke programa, munduko errealitate kooperatibo-komunitarioak ezagutzeko.

Garapenerako Esperientzien Truke programa antolatu dute Mundukide Fundazioak eta HUHEZIK. Martxoan zehar garatuko dute programa hori, eta Asia, Afrika eta Amerikatik etorriko diren 14 lider komunitario-kooperatibo izango dira gure ibarreen, hilabete osoan.

HELBURUAK

Truke programa horrek lankidetzan oinarritutako hartu-emanak bultzatu nahi ditu. Batetik, elkartrukatzearen helburua Hirugarren Munduko errealitate komunitario-kooperatiboak ezagutzeko da. Eta, beste alde batetik, Euskal Herriko, eta bereziki,

Esperientzia komunitario-kooperatiboak trukatu dituzte herrialdeek

Arrasateko esperientzia kooperatiboak erakustea.

Honduras, Txile, Ekuador, Argentina, Brasil, Kolonia, Kuba, Mozambique, Guatemala eta Filipinetatik etorriko dira partaideak, eta ikastetxe eta lan-tegi ugari bisitatuko dituzte. Esaterako, Eskola Politekikoa, Arizmendi ikastola, Arantzazuko Artzain Eskola, Eroski, Irizar, Goiena, Fagor eta Saiolan. Horrez gain, Nafarroa eta Iparralde ere bisitatuko dituzte. Hitzaldiak eta mahainguruak ere sartzen dira egitarauaren barne.

Mundukide Fundazioa 1999an sortu zen, eta garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzan jarduteko konpromisoa du.

Oraingo zapatuan egingo du Elkarrik sinadura batzea

23 mahai jarriko ditu Debagoieneko herrietan

O.E.

Joan den zapatuak deitu zuen Elkarrik sinadura batze eguna, baina eguraldi txarrak behartuta, bertan behera utzi zuen. Hala, bihar, zapatua, egingo du sinadura batzea, eta mahaiak jarriko ditu, goiz eta arratsalde, sinadurok jasotzeko.

Zapatu honetan, martxoaren 6an, egingo du Elkarrik mugimenduak pasa den zapatuak deitu zuen sinadura batze eguna.

Degaboienerako herri guztietan jarriko ditu Elkarrik sinadurak jasotzeko mahaiak. Guztira, 23 mahai. Arrasaten, Portaloian, Arima Zuri plazan, Garibain eta Eroskin jarriko dituzte, goiz eta arratsalde. Ber-

garan, azokan, Zurradero merkatuan eta Osintxu auzoan, goizez, eta Simon Arrieta eta San Martin plazan, goiz eta arratsalde. Aretxabaletan ere goizetik izango dira, Durana kalean, eta Elgeta, Eskoriatza eta Antzuolan, herriko plazan jarriko dute mahaiak, zapatu goizean. Aramaion, egubakoitz iluntzean egingo dira, herriko plazan. Arantzazun, domekan, eguerdia arte. Oñati da salbuespena. Oñatin, eguraldiari aurre egin eta joan den zapatuan bildu zituzten sinadurak, 877 guztira.

Elkarrik bakearen aldeko 1.500 sinadura bildu gura ditu gure ibarreen, eta horretarako, 75 bat boluntario eta Elkarriko hainbat kide ibiliko dira sinadurak biltzen.

DEBAGOIENEAN LABUR

Informazio eta komunikazio alorreko bi lizentziatura eskainiko ditu HUHEZIK

Informazio eta Komunikaziorako Giza Zientzien lizentziatura eta Ikus-entzunezko Komunikazioa lizentziaturaren bigarren zikloa eskainiko ditu HUHEZIK datorren ikasturteetik aurrera. Jon Sarasua izango da arduraduna. Horiez gain, irakasle ikasketen barruan, beste bi espezialitate irakatsiko ditu: entzumena eta mintzaira, eta Lehen Hezkuntza. Gaur egun, 786 ikasle ditu HUHEZIK.

Koldo Azkoitia aretxabaletarrak beteko du Jose Ramon Belokiren tokia Diputazioan

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Susta-penerako diputatu izendatuko dute Koldo Azkoitia, datorren astelehenean. Jose Ramon Beloki jeltzalearen tokia hartuko du aretxabaletarrak. Koldo Azkoitiak 41 urte ditu, eta ibilbide luzea du politikan. Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako zuzendaria izan da hamar urtez. Beste bi urtez Debagoieneko Industrialdeko zuzendaria izan zen, eta 2003tik gaur arte, A-1 eta A-8 autobidetako kudeaketaren arduraduna izan da. Zinegotzia ere izan da, Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako udaletan.

Eragozpenak sortu arren, irudi ikusgarriak utzi ditu elurrak



ETXETIK IRTETEKO ERE, LANAK

Etxe aurrean 73 zentimetro elur neurtu zituen Goiko Bentako Julianek. Gogotik egin du elurra joan den asteburuan, eta Arantzazun herrietan baino gehiago egin du, noski. Domeka goizean, esaterako, ez zen posible autoz Arantzazura heltzea. Gehienek Kortako gainean utzi zituzten autoak, eta handik, oinez joan ziren Arantzazura. Behean, Oñatin bertan ere elur asko egin du, baina ez Arantzazun bestekoa.



AUTOAK ERE, ELURPEAN

Argazki batek mila berbak baino hobeto azaltzen omen du, askotan, egoera, kasu honetan bezalaxe. Arantzazurako bidean, Gomistegiko bidegurutzean, domeka goizean ateratako argazkia da. Autoa elurraz erabat estalita ikusten da, atzerako ispilua bakarrik ikusten da. Detalle horrek eta elurrik irudikatu duen itxurak esan dute azpian autoa dagoela. Eskiatzailea ere autoaren gainean dagoela dirudi. Merezki zuen, bai, argazkia ateratzeko.



EMERGENTZIAZKO AUTOAK BAKARRIK

Zapatu eguerdian ateratako argazkia da hau, Leintz Gatzagara heldu baino lehen, Marulanda auzoan dagoen Zarimutzeko bidegurutzearen parean. Gatzako emakume bat lurrera erori zen elurretan irrist eginda, baina ambulanziaz ezin izan zuen etxe aurreraino joan. Errepidea itxita zegoen. Auzokideendako eta emergentziazko autoendako bakarrik zegoen zabalik, eta elurra kentzeko makina propio pasatu zen, ambulanziaz pasatzeko.

M-14 / HAUTESKUNDEAK

Hauteskunde programak aurkezten dabilta alderdi politikoak Debagoieneko herrietan ere

OIHANA ELORZA

Bergarako Ekimena, EA, EAJ, Aralar-Zutik, Ezker Batua, PSE-EE eta PP. Alderdi guztietako ordezkariak egon dira aste barruan gure ibarreen, datorren martxoaren 14an egingo diren hauteskundeetarako botoa eskatzen.


Alderdi batzuk kalez kale ibili dira boto eske, eta beste batzuek, ordea, aretoak aukeratu dituzte euren hauteskunde programa aurkezteko. Aste barruan izan dira ekitaldi gehienak, baina aste-bururako eta datorren asterako ere antolatuta dituzte.

Eusko Alkartasuna alderdia birritan egon da ibarreen astebetean. Joan den egubakoitzean, MCC eta Garaia egitasmoa bisitatzeko izan ziren Begoña Lasagabaster eta Iñaki Galdos. Eta martitzenean, EAKo aurpegi ezagun gehienak Arrasaten izan ziren berriro; Begoña Errazti eta Carlos Garaikoetxea tartean.

Manuel Huertas sozialistak Arrasateko Laubide plazan banatu zituen arrosak, eta handik, Abaroa zaharren elkartera joan zen. Alderdi Popularreko Jose Eugenio Azpirozek ere Arrasate aukeratu du kanpaina egiteko. Laubide plazan izan zen hura ere, eta San Andres auzoan segitu zuen programa azaltzen.

Aralar-Zutik koalizioak AHTren inguruko hitzaldia egin zuen, eguazten goizean, Bergarako Angiozar auzoan. Eta iluntzeko zazpietan, Antzuolako udaletxean koalizioaren asmoen berri eman zuten Ainhoa Larrañagak eta Pilar Etxanizek. Ordu berean, Oñatiko kultura etxean, Bergarako Ekimena proposatutako boto-papera erabiltzeko eskatu zuen Iñaxio Arregik.

Alderdi Jeltzaleko Jose Ramon Beloki eta Juan Mari Juaristi, besteak beste, Bergarako batzokian izan ziren atzo, eguna, eta gaur, egubakoitza, EBko ordezkariak Arrasaten izan dira Patxi Coira hautagaiarekin.



UBANE MADERA

Arrosak banatu zituen Alderdi Sozialistak Arrasateko Laubide azoka txikian.



UBANE MADERA

Alderdi Popularrak piruleta, metxeroak eta globoak banatu zituen.




UBANE MADERA

EAK Arrasateko Monterron jauregian egindako hitzaldia.



AINTZANE IRIZAR

Aralar-Zutik koalizioko Ainhoa Larrañaga eta Pilar Etxaniz Antzuolan, eguaztenean.



OIHANA ELORZA

Iñaxio Arregik autodeterminazioaren alde bozkatzeko eskatu zuen Oñatin.



LEIRE KORTABARRIA

Eusko Alderdi Jeltzaleak Bergarako batzokian egin zuen aurkezpena, atzo.



sagardo naturala
hernaniko sagardoa

Gure bezero eta lagunei:

Aspaldi ezagutzen dugu elkar, eta, urtero bezala, garai honetan atea zabaldu ditugu, gure sagardoa dasta eta edan dezazuen.

- Eguaztenetik zapatura, arratsalde zabalik.
- Zapatueta, eguerdiz.

Osinaga auzoa
Tel. 943 550 328
HERNANI



ANTZUOLA

Emakumeen gaineko erakusketa zabalduko dute oraingo asteburuan

Anelkarrek antolatuta, Amnesty International erakundearen *Giza eskubideak, emakumeen eskubideak* izeneko argazki erakusketa zabalduko dute bihar, zapatua, Olaran etxean. Oraingo asteburuan eta hurrengoan egongo da ikusgai erakusketa hori, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara. Munduan emakumearen egoera zein den ezagutaraztea da erakusketaren helburua. 20 argazki egongo dira ikusgai. Bestalde, gai horren gaineko hitzaldia ere egongo da astean zehar, hilaren 11n, ziurrenik. /A.I.

ARAMAIO


Aurten, aurreneko aldiz, Aramaioko Gazte Eguna ospatuko dute

Aramaioko zenbait gazte buru-belarri lanean ibili da egitasmo berezi eta berri bat antolatu nahian: Aramaioko Gazte Eguna. Oro har, herriko eta inguruko gazteei zuzendutako eguna izatea nahi dute. Eta jai ederra egiteko moduko ekitaldiak antolatu dituzte, oraingoz. Aurreratu diguten, bertso-saioa, trikitaldiak, eta inguruko zenbait talderekin kontzertuak hitzartuta dituzte Aramaioko Gazte Egunerako (Sacre, Ataca, Nok, Sharon Stoner, Biok eta Materia). Eguna ere zehaztu dute: apirilaren 16a. /U.M.

ELGETA

Gaztetxearen zortzigarren urteurreneko ospakizunak abian

Datorren martxoaren 20an, gaztetxeak zortzigarren urteurrena ospatuko du. Hori dela eta, Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi antolatu ditu hilabete honetarako. Besteak beste, kontzertuak eta hitzaldiak izango dira. Bihar, martxoak 6, kontzertua izango da, 22:30ean hasita, eta bertan, Zea Mays eta Leihotikan taldeek jardungo dute. Bestalde, martxoaren 8rako kontzentrazioa deitu du Gazte Asanbladak. Bilkura 20:00etan izango da, plazan, *Emakumea bizirik* lelopean. /A.A.



IKER BARANDIARAN

ARRASATE

Sasoi bateko hezkuntza sistemaren gaineko liburua

Frankismoaren azken urteak abiapuntu hartuta, Iñaki Berezibar idazleak 1961-1975eko hezkuntzaren gaineko liburua argitaratu du. *Juventudes Viatorianas* izenburua ipini dio. Izan ere, oro har, Arrasateko San Viator eskolako hezkuntza sistemaren gaineko liburua da. Idazleak zera dio: "Kontatu nahi izan dut alde batetik anekdotak, bitxikeriak, gertaerak... Umetan fraideetan gertatutakoak. Baina, gero, horrekin batera kontatu nahi izan dut sasoi hartako hezkuntza sistemaren kronika: zer-nolako testuak erabiltzen zituzten, zelako hezkuntza-mota sufritzen genuen...". Bati baino gehiagori ekarriko dizkio gogora umetako kontuak. *Juventudes Viatorianas* salgai dago, eta idazleak liburua Arrasaten aurkezteko asmoa dauka. /U.M.

OÑATI

'Txiki txoko' eraikinean zabalduko dute haur eskola publikoa

Joan den otsailean onartu zuen Oñatiko Udalak haur eskola publikoa ezartzea eta partzuergoan sartzea. Haur eskola publikoaren zerbitzua eskaintzeko, bi lokal ikusten zituen egoiak Udalak: Errekalde herri eskola eta lehengo *Txiki txoko* eraikina. Azkenean, eta Hezkuntza batzordearen irizpenak kontuan hartuta, *Txiki txoko* eraikina egokitzea erabaki du.

Aurrekontuen arteko diferentzia nabarmena izateaz gain, Hezkuntza batzordeak beste puntu bat azpimarratu nahi izan du *Txiki txoko* eraikina proposatzeko. Batzordearen iritziz, Udalaren bitartez eskainiko da 0-3 urte bitarteko haurren hezkuntza zerbitzua. Oñatiko Haurreskolak udal zerbitzu izatera izango du, eta beraz, zerbitzua eraikin *neutral* baten kokatzea da egokiena. Gainera, kontuan hartu du eraikin hori oñatiar asko biltzen dituen bi auzoren artean dagoela, Olakua

eta San Lorenzo auzoen artean, hain zuzen ere.

DATORREN IKASTURTERAKO

Aste honetan bertan izan dira teknikariak, eta eraikina egoera onean dagoela esan dute. Umeen kotxeak gordetzeko txoko bat egin behar da, eta estalitako gune bat ere bai. Gainontzean, inguruak txukundu eta barrua pixka bat egokitu behar da. Orain, eskulanetako ikastaroak ematen dituzte han, eta kontopontze lanak noiz hasiko diren ez du oraindik zehaztu Udalak, baina datorren ikasturterako zabaldu nahi du. /OIHANA ELORZA

Zertzelada

Udalak ez du zehaztu egokitze lanak noiz hasiko diren, baina datorren ikasturterako zabaldu nahi du.

BERGARA

Santu Martirixen Eguna ospatzeko feria izango da zapatuan Osintxun

Bihar, zapatua, Santu Martirixen Eguna ospatuko dute Osintxu auzoan. Goizean zehar baserriko produktuen eta artisau lanen azoka izango da. Eguerdi partean, berriz, garai bateko egur langintza nola egiten zen azaltzeko erakustaldia egingo dute. Dantzariak, musika eta talogileak ere izango dira.

Gauean, bertso afaria izango da Txuringo jate-txean, Unai Iturriaga eta Igor Elortzarekin. Aintzane eta Nerea egun osoan arituko dira giroa alaitzen.

Osintxuko Txurumilo elkarteak Santu Martirixen Eguna berreskuratu zuen orain dela lau urte. Ekimenak harrera beroa izan du urteotan. /E.M.



ARTXIBOA

Baserriko produktuen eta artisau lanen feria izango da Osintxun.

ARETXABALETAKO

Manu Azkarateren gaineko mozioa aurkeztuko dute osoko bilkuran

Ohiko osoko bilkura egingo du Aretxabaletako udalbatzak astelehenean. Manu Azkarate euskal presoaren gaineko mozioa aurkeztuko dute lehenengo, eta Izartu programaren berri emango dute gero. Eusko Jaurlaritzak duen programa da Izartu, eta herrian egin behar diren lanetako dirulaguntzak arautzen ditu. Aretxabaletako Udalak Otalora kalean biribilune bat eta saneamendu lanak egiteko eskatu gura du. Beste gairik ez dute izango astelehenean erabakitzeko, baina egunean bertan aurkez daitezke. /M.A.

ESKORIATZA

Espainiako gerrari eta Errepublikari buruz erakusketa antolatu guran

Eskoriatzako Udalak Errepublikari gerra gaitzat hartu eta horri buruzko erakusketa antolatu gura duela adierazi du. Egitasmoa aurrera ateratzeko herritarren laguntza behar dute. Gaiaren inguruko materiala (argazkiak, dokumentuak...) eskatu nahi die, erakusketa txukuna antolatzeko. Apirilaren 17tik maiatzaren 2ra egin nahi du erakusketa. Materiala ondo zainduko duela agindu du, eta erakusketa amaitzerakoan egoera onean itzultzeko konpromisoa hartu du Udalak. /Z.V.M.

GATZAGA

Aralar-Zutik koalizioa aurkeztuko dute bihar Gatzagan

Bihar, martxoak 6, Aralar-Zutik koalizioak taldearen aurkezpenean egingo du Gatzagan. 13:00etan izango da hitzordua, herriko kaleetan. Hauteskunde kanpainan murgildu gara dagoeneko, eta ahalik eta boto gehien lortzea dute helburu alderdi politiko guztiek. Oraingoan, Aralar-Zutik koalizioaren txanda da, eta hura ere Madrilerako ahalik eta ordezkari gehien lortzen saiatuko da. Bihar, gatzagarrei aurkeztuko die bere proposamena koalizioak, herriko kaleetan. /Z.V.M.

Alberto Agirreazaldegi elgetarrak Gasteizen egiten du lan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean dihardu, aholkulari, eta ikasle etorkinen eskolaratzeaz eta eskola txikiez arduratzen da, besteak beste.

OIHANA ELORZA

Baretu da Hezkuntza Sailak bidalita-ko gutunak sortu duen iskanbila?

Epez kanpo matrikulatzen diren ikasleei begira idatzi zuen gutuna Hezkuntza Sailak. Matrikulazio epea oraintxe bukatu da, baina epe horretatik kanpo matrikulatzen direnak ere badira. Etorkinak, esaterako, astero-astero etortzen dira, ez dute etortzeko egun zehatzik. Ikasle potentzialak dira, eta ezin dira etxean egon, eskolatu egin behar dira.

Hezkuntza Sailak ikastetxeei bidali zien gutuna, ikasle etorkinak ahalik eta ondoen eskolatzeko nola funtzionatu behar duten gomendatzeko, horretan laguntzeko. Iskanbila gutun horren irakurketa berezia egin dutenek sortu dute. Guk ez genuen esan etorkinak nortzuk diren, hori beste batzuek egindako interpretazioa da. Guk, beste hezkuntza sistema batetik, epez kanpo datozen ikasleengan pentsatuz idatzi genuen gutuna.

Beste hezkuntza sistema batetik datozenak sartzen dira programa horretan, beraz.

Bai, izan liteke Kolonbiakoa edo izan liteke Cacereskoa. Azken baten, Espainian hezkuntza sistema guztiendako bat bada ere, hemengo sistemak ezaugarri berezi batzuk ditu. Eta beharrezkoa da neurri batzuk arautzea, batez ere, hemengo hezkuntza sistemara behar bezala egokitze-ko eta bermatzeko.

Etorkin berbak berak sortu du, orduan, horrenbesteko zalaparta?

Hemengo hezkuntza sisteman baino, arreta handiagoa jarri dute *etorkin* berba interpretatzen. Gutun hori laguntzeko baino ez zen, baina irakurketa guztiz kontrako egin dute batzuek, interesatua delako. Irakurketa politikoa egin da. Gure gomendioa ikasleak B eta D ereduetan matrikulatzea zen, eta nonbait, hori da askori gustatu ez zaiona.

Gainera, bai Espainiako Hizkuntza Akademiak eta baita hainbat dokumentu guk egin dugun erabilpena zuzena dela berretsi digute.


Une honetan, zenbat ikasle etorkin daude Euskal Herrian?

Egunetik egunera aldatu egiten da kopurua. Ditugun azken datuak urtarri-lekoak dira, eta horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, 8.000 inguru. Betiere, eskolatzeko adinean dauden ikasleak dira. Helduen ikasketak ez dira datu hauetan sartzen.

Gehienak, bi herenak, latinoamerikarrak dira, Ekuador eta Kolonbiatik etorri direnak. Horien atzetik marokotarrak eta argentinarrak daude.

Eta zenbat daude Debagoiengan?

Aipatutako 8.000 horietatik, 2.350, %29, Gipuzkoako ikastetxeetan daude. Bizkaian, erdiak baino gehiago, eta gaitzakeoak, Araban. Degaboiengan 138 ikasle etorkin daude, Gipuzkoa osoko %5. Proporzioari begiratuta, ez dira asko. Egia da gehienak hiriburuetan eta inguru-
ruetan daudela. Datu hauek, dena dela, urte guztirako matrikulatu diren ikasleak dira. Lurralde batzuetan, Araban batez ere,



IRATI AGIRREAZALDEGI

Alberto Agirreazaldegi

HEZKUNTZA SAILEKO AHOULKULARIA

“Etorkin berbak baino gehiago, horren irakurketa interesatuak sortu du zalaparta”

ETORKINEN ESKOLARATZEA
“B eta D ereduetan matrikulatzeko aholkatu die Hezkuntza Sailak, eta hori ez zaie gustatu askori”

ESKOLA TXIKIAK
“Gipuzkoan bizirik dagoen errealitatea da eskola txikiena; 26 daude gure lurraldean”

denboraldi baterako etortzen diren ikasleak ere badira, sasoiari sasoiak lana egitera etortzen direnen seme-alabak.

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ikasle etorkinen bi herenak latinoamerikarrak dira.

Normalean, etorkinek oso diru gutxi izaten dute, eta askok diote aukera bakarra ikastetxe publikoak direla.

Hezkuntza Sailean politika ikasleak ikastetxe guztietan eskolaratzea da, eta aukera bakarra ez dira ikastetxe publikoak.

Gaur egun, EAEn, apenas daude pribatuak. Pribatuak hitzartutakoak dira, itunduak. Ikastetxe pribatuak izan arren, itun bat dute Hizkuntza Sailearekin, eta beraz, doakoak dira. Ezin dute kobratu kuota-rik ikasketak emateagatik, beraz, hauek ere berdin-berdin arduratu behar dira ikasle etorkinak hartzeaz, batez ere, denontzat mesedegarria delako.

Egia da gaur egun ikasle etorkinen %70 ikastetxe publikoetara doazela, baina horretan ere, ikastetxe batzuetan bestee-

tan baino gehiago daude. Desoreka dago hor ere, eta desoreka oro konpontzea da Hezkuntza Sailearen helburua, eta horretarako lanean ari da.

Zein neurri hartu dituzue helburu hori lortzeko?

Alde batetik, bai ikastetxe publikoetan, eta bai itundu-
etan, hizkuntza indar-
keta programa batzuk jarri ditugu. Horretarako, ikastetxe publikoetan, esaterako, irakasleak jarri ditugu, 75 irakasle gehiago EAEn. Itundu-
etan, berriz, deialdia egin da programa hori indarrean jartzeko dirulaguntzak jasotzeko. Gutxi gorabehera, milioi bat euroko dirulaguntza emango zaie ikastetxe itunduei.

Zein eredu- tan daude matrikulatu- ta ikasle gehienak?

Gehienak B eta D eredu-
tan daude. Horregatik, Hezkuntza Sailak aholkatzen die ikasle etorkinei bi eredu horietako batean matrikulatzeko. Orain arteko joera kontrakoak izan da, baina ikasle gehien-
goak B eta D eredu-
a aukeratu badu, hori da integrazioa hobeto egokitze-
ko bide zuzena. Gaur egun, berez, ikasle etorkin gehienak A eredu-
an daude matriku-
latuta, baina Jaurlaritzako Hezkuntza Sai-
lak ikasturte honetan jarri du aipatutako programa, eta bi, hiru, lau urte barru ikusi-
siko dira ondorioak.

UZEIko zuzendaria izan zara urte- tan. Zein berba sartuko zenituzke Etorkin- en Hiztegi- an?

Han sartu ordez, geure hiztegi-
an sartuko nituzke, geuk ere daukagun txipa aldatu egin behar dugu-
eta. Eta berba horien artean leudeke, esate baterako: berdintasuna, aniztasuna, bizikidetzatza, errespetua eta kultura arteko hezkuntza. Etorkin-
en eskolaratzearen inguruan gehien aipa-
tzen diren berbak dira horiek, eta denok erabili beharko genituzke, arazoa geurea ere badelako. Integrazioa ona da denontzat, baina horretan lagundu egin behar diegu.

Eta nola integratzen dira eskola txikiak gaurko gizarte- an?

Gipuzkoan, bizirik dagoen erreali-
tea da eskola txikiena. 26 eskola txiki dau-
de gure lurraldean.

Poliki-poliki bueltan datorren fenomeno da. Hainbat eta hainbat herritan itxi egin ziren eskolak, baina herriak indartzen hasi dira, biziberritzen. Programa asko jarri dira martxan herriak bizirik irauteko. Jende gazte asko gelditu da herrian. Beste batzuk, arrazoi bategatik edo bestegatik, propio joan dira herri txiki batera bizi izatera, haurrak izan dituzte, eta udal agintariak konturatu dira eskola funtsezkoa dela herria bizirik izateko. Hiru, lau gela dituzte eskola hauek, eta nahasturik daude adin ezberdinetako ikasleak, baina eskola txikia horrelakoa da, definizioz ere. Eskola txikia, eskola unitario bat, ez duela linea oso bat, baina bai ziklo oso bat, lehen hezkuntza osoa, esaterako.

Txikiak direla esan arren, handiak direla, alegia.

Gauza positibo asko dituzte. Bertan egoteak esan nahi du kanpora irteteko adina atzeratu egiten dela. Herrian bertan bizi direnak bertan eskolatu dituzte, eta horrek herria bizirik dagoela esan nahi du, herri bizi dela.

Oroitzapen onak dituzu Elgetako eskola txikian ibili zinenekoak?

Oso onak. Argazki dezente ditut, eta tartean-tartean ikusten ditut. Argazki horietako batean, guztietan gazteena naiz ni, eta ni baino zazpi-zortzi urte zaharragoak direnekin batera nago. Denok elkarrekin izaten ginen, gela berean. Gazteek zaharrendik eta zaharrenek gazteengandik, denok ikasten genuen zerbait. Hori mesedegarria da. Adituek ere gauza bera diote.

Zabalik

MARKOS
BALENTZIAGATrokel
berekoak

Saso bakoitzak ditu bere moda eta moduak janzkeran, pentsaeran zein usadixoetan. Berbarako, oraindiko be oso goguan ditudugu Francok famatutako bigote xaxtarra eta eguzkittako betaurrekuak: udako eta neguko moda-genero beti berdiña, fatxen artian hain miña izandakoa. Pinochetek be, 1973ko Txileko estatu-kolpearen ondoren, irudi horixe bera edo antz antzekoa aukeratu zeban munduari buelta egiteko, komunikabi-deetan.

Ez dakit Frankismoarekin lotura estetikorik daukan, baiña PPko zenbait mutiko azkarrek badau janzkerarrazkeratan halako uniformetasun bat; erreparatu, bestela, Antonio Basagoitiren edo Borja Semper-en irudiei, edota Iñaki Oyarzabalenari..., diseño berekoak emoten dabe. Itxura hori PPko politikoa postmodernoen uniformea da, ala uniformizazioaren traje postmodernoa basterik ez?

Aznar bera be, politikan abentau zan sasoiari, traje pintto pinttoarekin eta orrazkera engomintuarekin agertzen da erretratuetan; bigote ganorabako beraren atzetik, oraintxe letxe.

Aparteko kasua Carlos Urquijorena da. Urquijok alperrik dittu, honezkero, edozein gominaren distirak, erabiltzeko illerik ez dauka-eta. Baña ideien originaltasunik eza beste edozein partidukideren parekoa dau.

Irudia irudiaren ondoan ipiñi eta Frankismoan higuindu arte ikusi behar izan giñuan ezaguneko Jose Antonio Primo de Riveraren antzik ez dabe PPko modeluok?

Gutunak

Txistuak zeinentzat?

Berrigara-ko hirugarren orrian "txistuak" Bjaso ditugu aurreko astean. Zergatik, eta Takolo, Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarreraren salmenta gaizki antolatzeagatik. Leporatu digite sarrerak agortu zirela, eta jende askok kanpoan geratu behar izan zuela, sarrera gehiago saltzeko lekua egonik ere. Horren aurrean, zera erantzun nahi dugu:

1. Bergarako Udal Pilotalekuak 1.020 eserleku dituela, eta ikuskizun publikoetarako segurtasun arauak ez dutela uzten inongo kasuan eserleku kopurua baino sarrera gehiago saltzea.

2. Larrialdietarako irteerak libre egon behar izaten dutela, eta eskailera eta pasilloetan ere ezin dela inor jarri, antolakuntzakoak eta larrialdi zerbitzuetako langileak salbu.

3. Takolo, Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna otsailaren 22an izanik, otsailaren 13an jarri ziren sarrerak salgai (astebete eta piku lehena). Jakinda izugarritzko arrakasta duen ikuskizuna dela, litekeena dela sarrera gehienak alde aurretik saltzea eta egunean bertan leihatilan sarrerarik apenas egotea, zergatik itxaron azken unera arte sarrerak erosteko ikuskizunera joateko gogo biziz egonik? Udaleko kultura zerbitzutik erabaki zen sarreren %10 leihatilan saltzea, azken unean animatzen zirenei aukera emateko. Dena dela, inongo legek ez du horretara behartzen.

Hori guztia kontuan hartuta, txistuak zeinentzat?

UDALEKO KULTURA ZERBITZUA
Bergara

Biodibertsitatea
eta osasuna

Zergatik ematen zaio hainbeste garrantzi biodibertsitateari? Ingurugiro, zientzia, kultura eta gizarte mailan interesa duelako, eta gizarteari elikagaiak, medizina eta ekoizpen industrialak ematen dizkiolako.

Biodibertsitate handiko lekuetan, osasunarekin estuki loturik dauden faktoreak ugaritzen dira: elikagaiak lortzea errazagoa da, lurra aberatsa delako; medizina, hauetarik asko eta asko landareetatik ateratakoak, ugari aurki daitezke landare espezieen ban-

ku genetikoetan. Landareengan euskarri nagusienetakoa duen farmaziaren industri indartsua nahi beste aukera ditu aipaturiko banku honetan. Ur edangarria errazago agertzen da, biodibertsitatearen osagarri diren ekosistema naturalek uraren filtratzaile gisa funtzionatzen baitute. Ez da kasualitatea ur edangarriko urtegiak normalean biodibertsitate handiko lekuetan kokatzea, EAeko garrantzitsuena den Ulibarri-Ganboakoa kasu, eta azkenik, nola ez, Urkulu. Airearen garbiagoa da. Amazonia horren adibide: munduko biodibertsitate gehien duena da, eta aldi berean "munduko atmosferako airea berrizatzen duen birika" kontsideratzen da. Debagoienean ere, ekosistema naturalek, fotosintesiaren bitartez, industria eta autoen ahotatik ateratako dióxido karboniko kontaminantea oxigeno arnagarri bihurtzen dute, eta hosto-estaldurek kontaminazioaren pantaila gisa funtzionatzen dute. Debagoienean ekosistema natural gutxi geratzen dira eta pinu (*pinus radiata*, zehazki) asko. Pentsatzen da airea garbitzearen funtzioa pinudiek egin dutela. Batez ere forestalisten inguruetan. Hori neurri batean egia da: pinudiek, ekosistema naturalekin batera, funtzio hori bete dute orain arte. Baina pinudien matarrasak eragindako luraren erosioak hau pobretu eta pinudi berrien hazkuntza hipotekatzen du. Zeelanda Berriaren *pinus radiata*-rekin egindako ikerketetan, ikusi zen bigarren turnotik aurrera lurra nabarmenki pobretzen zela. Debagoieneko pinudi askok jada duela aspaldi pasa zuten bigarren turno. Argi dagoena zera da, ekosistema naturalek funtzio garbitzaile berdina egin dezaketela, baina gainera iraunkorki, eta hori gutxi balitz gero eta hobeto. Kontestu honetan, zein baldintzatan biziko dira gure ondorengoak?

Debagoieneko Lurralde Zatikoa Plana onartzen baldin bada, Arrasateko eta inguruko ekosistema naturalek Permioko (duela 500 milioi urte) katastrofe naturalen ondoren jasandako gutxitze handienetakoa bat jasango dute. Uribarri, San Andres eta Bedoña inguruko zelai atlantikoak, Garagartza eta Santa Ageda inguruko artadia (honekin batera Kobateko eihar frantsesa) eta Andra Mari Zuriko haltzadia, Zalduspe eta Aretxabaletako hilerri ondoko haiztia. Agian, Arrasaten antolaturiko *Sendabelarrak eta ekosistemak* ikastaroan ezagutuko diren azken aldietariko bat izango da.

URTZI MENDIZABAL,
BASABELAR INGURUGIRO ELKARTEA
Arrasate

Egon, parte hartu,
erabaki

Emakumeok azken urteotan izugarritzko aldaketak eragin ditugun arren, lanak sexuaren arabera banatuta jarraitzen du, hau da, gizonen lan produktiboa eta arlo publikoa egokitzen zaie eta emakumei etxeko lana eta arlo pribatua.

Erabat deigarria da zein emakume gutxi dagoen botere-postuetan edota erabaki politikoak hartzekoetan. Oso emakume gutxi aurkituko ditugu pertsonen bizitzari eragiten dioten erabaki pribatu eta publikoak hartzen diren lekuetan.

Emakumeek erantzukizun politikodun postuetan duten ordezkaritza eskasaren aurrean, pixkanaka-pixkanaka neurri bereziak ari dira hartzen, diskriminazioa baztertu eta berdintasuna bultzatzeko helburuarekin. Neurriok emakumeek beren mendekotasun-egoeratik dituzten mugak aldatu nahi dituzte, gizonen pribilegioak kenduz emakumeen alde eginez. Neurri horietako bat kuotak dira. Kuotak neurri iragankorrak dira, hau da, aldi baterakoak, eta emakumeek arduraren politikodun postuetan duten ordezkaritza handitzea da beren helburua.

Baina, berdintasun-baldintzak lortzeko, neurri publikoak hartzeaz gain beharrezkoa da gizarte eta pertsona bakoitza erabat aldatzea.

Familiarekiko arduren oraindik gaitz pribatua izaten jarraitzen dute eta emakumeen eskuetan daude ia erabat. Emakumea orain soldatapeko lan-munduan sartuta egon arren, ezin ditu "bere lanak" alde batera utzi.

Jarduera politikoa eta bizitza pribatua bateratu egin behar dira, baina bateratze-falta hori oraindik ez da arazo politikotzat hartzen. Bizitza pribatuan zamak eta onurak ezberdin banatzeak ez du inolako justifikaziorik. Gainera, ondorioz emakumeek ez dute gizonen besteko autonomiarik beren aukera sozialak pentsatzeko orduan.

Gaur egun erantzukizun-postuek eskatzen duten dedikazio politikoa ez da batere bateragarria dedikazio pribatuarekin. Politikan sartzen diren emakumeek oso garesti ordaintzen dute partaidetza hori. Bestalde, politika egiteko modua gizonen neurrikoa da: ordutegiak, lan egiteko moduak, portaerak eta harremanak izateko erak ez datoz bat emakumeen moduekin. Gainera, denborak aurrera egin ahala portaera apenas

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



aldatu da eta pertsonen izugarriko aha-
leginak eta kostuak jarri behar dituzte.

Gizarte-zerbitzuak eskasak izateak
ere oraindik gehiago okertzen du ego-
ra. Ezinbestekoa da erakundeei kalita-
teko zerbitzuak eta gizonen eta em-
akumeen arteko ezberdintasunak zuzen-
tzera bideratutako politikak exijitzea.
Gaur egun, oraindik, gizonen ez diote uko
egin nahi orain arte euren esparrua izan
denari; halaber, gogor ekiten diote em-
akumeen euren espazioa hartzeari.

Benetako berdintasunera heltzea era-
gotzen duten trabarik gehienak oso sus-
trai sakonekoak dira; izan ere, egin beha-
rreko aldatetarako sistema patriarkalaren
beraren oinarria jartzeko dute kolokan eta
aldaketak egiteko, berritortu behar-
ko lirateke boterearen kontua (abstrak-
tuki eta zehazki), gizarte-harremanak eta
horretan guztian generoak duen egitekoa.

Gure ustez, irtenbidea denbora eta
lana (soldatepekoa ez dena ere bai)
beste era batean banatzea izan daite-
ke, alegia, bizitza ez oinarritzea hain-
beste lanean eta beste zeregin batzue-
tarako denbora gehiago izatea: aisial-
dirako, edadetuak zaintzeko, etxeko
lanak egiteko edota arlo pribatua gara-
tzeko. Horretarako, beharrezkoa da
gizon eta emakumeen kontzientziak,
ohiturak eta portaerak aldatzeko zere-
ginari ekitea, horrela bakarrik lortu-
ko dugu eta emakumeen diskrimina-
zioa gaitzitu duen berdintasuna.

MALEN ERRASTI
Arrasate

Hauteskunde kanpaina errespetuz

Gutun honen bidez Debagoieneko Ara-
larko kideok bi kontu argitu nahi diz-
kiogu herritarrei:

1. Inauteri aste bukaeran agertu ziren
Batasuneko kartelek diotena ez da egia.
Kartel hauetan, aulki baten irudia eta
hainbat izen-abizen agertzen da, berez
herri bakoitzeko plataformetako zinego-
tziei dagokien aulkia hartu omen duten
beste alderdietako zinegotziena. Bertan,
Bergara, Arrasate edo Aretxabaletako
Aralarko kideen izenak agertzen dira, eta
herri hauetan guk ez dugu ez dagokigun
kargurik hartu. Hego Euskal Herri guz-
tian herri bakar batean hartu dugu pla-
taformari dagokion kargu bat, Leitza-
n hain zuzen ere, eta bertako plataform-
aren adostasunarekin; bestela, alkatetza
UPNren esku geratu eta, besteak beste,

jadanik Ikurrina udaletxeko balkoitik
desagertuko litzatekeelako. Eta gainon-
tzeko alderdiek eman beharko dituzte
azalpenak gai honetan daukaten jokia-
rari buruz, baita plataformek ere, beraiek
salatzen duten jokabidea baitauka. Amez-
ketako Batasunaren plataforma legalak
Amezketako udaletxean, adibidez, legez
kanporatutako herriko beste platafor-
mari dagozkion karguak hartuta.

2. Gu ez gara Euskal Herritarrok. Eta
ez dugu inoiz bere oinordeko garenik
esan. Soilik adierazten dugu garai bate-
an Euskal Herritarrok-ekin sortutako ilu-
sioa eta indarra berreskuratu nahi dugu-
la. Beraz, ez dugu ulertzen aurreko aste-
an EHko zenbait kidek gu EHren
oinordekotza hartu nahian ari garela eta
egoera mingarria dela adieraztea. Are
ulergaitzagoa egiten zaigu, haiek bai
adierazpen horiek EHren izenean egin
dituztelako. EH askotariko koalizio
ezkertiar eta abertzalea zen eta orain
Batasunarekin bat egiten dutenak, Ara-
larren gaudenak, Zutik, AB eta beste
batzuk ere bageunden.

Hauteskunde hauetan berriz ere defi-
zit demokratiko larria sufritzen ari gara
Batasunak ezin duelako hauteskunde
kanpaina normaltasunez egin eta hain-
bat herritarrek beraien aukerako hauta-
gaitza bozkatzeko zailtasuna izango dute-
lako. Legez kanporatzeaz gain, gogor sala-
tu nahi dugu Jaurilaritzaren eta
Ertzaintzaren jokaera, Batasunaren kale-
ekitaldiak era zakarrean eragotzen diha-
duelako. Egoeraren zailean eta hautes-
kunde kanpaina dela-eta hainbat gauza
uler dezakegu. Batasunari errespetua
besterik ez diogu eskatzen. Errespetutik
abiatuta, prest gaude elkarlanean jard-
uteko. Horrela posibleago izango da erai-
kitzea Euskal Herri berri eta ezkertiar bat.

DEBAGOIENEN ARALAR
Debagoiena

Itoiz, stop!

1995eko udan ezagutu nuen aurkeztu
nahi dizuedan lurralde. Bere izena
Longida harana da. Ikusiaz bat maite-
mindu egin nintzen. Izan ere, mendia
maite duen edonoren txoko preziatu
izan daiteke, margolariaren paisaia
amaiezina edota maiteminduen gorde
gune eta zoroaldien lekuko bakarra.

Edertasun hark inguru haiek gehia-
go ezagutzeko grina piztu zuen nire biho-
tzean. Elkartu ginen paraje guztiak eza-
gutzeko asmoz. Bertan, lurralde harta-
ko bihotzean, edertasuna baino gehiago

dioren baloreak aurkitu nituen; sozialak,
historikoak, ekologikoak... (natura bera,
bizitzaren legea...).

Bihotz hartan Irati izeneko erreka
garbi eta emankorra aurkitu nuen, men-
detan gure arbasoen lan tresna izan den
lagun nekaezina. Haitz tente bezain bote-
retsua, artearen eta haritzaren leku pre-
ziatu den lurra eta ugatzaren bizileku.

Bihotz honek eskuzabal hartu izan
du beregana hurbildu den oro, kontuan
izan gabe badagoela beste balore batzuen
izenean (dirua balore ote?) edozein edo
edonor txikitzeko prest dagoenik.

Horrela gertatu zen; izen propio uga-
ri dituzten politikoei, hura ikustean,
beraiztat nahi izan zuten, bere jabe
izan. Eta bere sena, izatea txikitzei ekin
zioten. Zuhaitzak kentzen hasi ziren,
harrobia egiten..., bertako harriarekin
zentsurik ez duen presa eta errepideak
egin zituzten. Guztia bortxatuko zuen bel-
durrez? Honen guztiaren testigurik ez iz-
ateko, bertan gertatzen zena ikusten ari
ziren herritarrek, beraien etxeak defen-
datzen zituztenak, kartzularatu eta ber-
tatik bota zituzten, herriak txiki-txiki egi-
nez eta mapatik desagerraraziz.

Jada, bihotz eskuzabal bezain gogor
hau oraindik taupadaka ari denez, itotzen
jarraitzen dute, urez betetzen. Irakurle
preziatu, badakit ipuin (edo amesgaizto?)
honi ez diozula ez hanka ez bururik ikus-
ten. Nik ere ez. Baina oraindik ez du amaie-
rarik. Espero dut amaiera herriak jarri-
ko diola. Bitartean, hau gertatu dadin,
goiari eutsi eta haitz zorrotz horietara ig-
otzen jarraituko dut. Eta bertatik irrintziak
botako ditut ea Longida izeneko hara-
naren bihotzak indarra hartzen duen tin-
ko mantendu dadin. Iratik gu guztion
beharra du, mendizale eta euskaldun
ororen beharra. Ezagutuz maitatzen dela-
ko, maite dena zaintzen delako... gure
lurra errespetatu, orain!

Bukatzeo, honako hau dena: Itoiz-
ko betetze frogak gelditu, datozen epai-
ketei ez, Iñaki askatu eta ziurtasunaga-
tik, Itoiz, stop!

NEREA ATXA
Arrasate

Sakabanaketa amaitu!

Euskal Herriko gehiengoa behin eta
berriz agertu da Euskal Presoak Eus-
kal Herritarrearen alde. Behin eta berriz
eskatu dugu gure senideek Euskal Herri-
ko espetxeetan egoteko duten eskubidea.
Hala ere, hau ez da inondik inora erres-
petatzen.

Euskal Herriaren alde borrokatze-
agatik, 700 euskaldun baino gehiago
dauzkagu 86 kartzela desberdinetan
eta hauetatik, hamar bat besterik ez dau-
de Euskal Herriko espetxeetan. Beste
guztiak EHTik kanpoko kartzeletan dau-
de sakabanatuta. Euskal preso politi-
koen aurkako dispertsio politika due-
la 16 urte jarri zuen martxan Madrilgo
gubernuak EAJ-PNVren laguntzare-
kin, presoak beren ingurune naturale-
tik urruntzeko, beren izaera politikoa
suntsitzeko.

Preso gisa dituzten eskubideak uka-
tzen zaizkie, euren etxetik hurbilen
dagoen kartzelan egoteko eskubidea
baitute. Arrasateko herriak oso ondo
daki zer den sakabanaketa, astero-aste-
ro 23.374 kilometro egin beharrean aur-
kitzen baikara, honek suposatzen duen
gastu ekonomiko, errepideko arris-
kuari aurre eginez... Izan ere, Arrasa-
te dituen hamazortzi preso politikoe-
tatik bat bera ere ez dagoelako Euskal
Herrian. Orain arte Martutenen zego-
en *Kanto* Zuerara eraman dute, Josu
Arkauz ere, Salamancan egonik, orain
Alacantera urrundua izan da. Bien
senide eta lagunak askoz ere kilometro
gehiago egin beharko dituztelarik
beraiekin une goxo eta labur bat iga-
rotzeko. Urtea hasi denetik zortzi auto
istripu izan dira espetxeetarako bidaie-
tan, zenbat senide eta lagun istripu,
hildako gehiago behar dira egoera ile-
gal honi buelta emateko?

Hitzetatik ekintzetara pasatzeko
ordua da, nazkatu gauden gure aurka
erabiltzen den mendeku eta politika hone-
taz. Hauteskundeak direla-eta, azkenal-
dian politikariei, giza-eskubide, erres-
petu..., horrenbeste gustatzen zaizkien
hitzei ahoa betetzen zaie, baina ez dira
guregatik ari, guk ez dugulako sufritzen
herri honek bizi duen gatazka politikoa.
Horregatik, gu eta gure senide preso-
en aurkako edozein eskubide urraketa (saka-
banaketa, 92. artikularen urraketa,
3/4ak beteak izanda espetxeraturik jarrai-
tu, estradizioak, bakartzeak, jipoiak...
besteak beste), zilegizkoa dela dirudi.

Hala ere, gatazka honek badu kon-
ponbiderik, baina justizian eta eskubi-
deen errespetuan oinarritutakoa behar
du izan. Dispertsioa bezalako politika-
rekin sufrimendua areagotzea baino ez
delako lortzen. Euskal presoek Euskal
Herrian behar dute izan euskaldunak
darelako, herri honen prozesuan parte
hartzeko eskubide osoa dutelako. Hala
dagokielako! Euskal presoak Euskal
Herrira!

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

HURRENGO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

Zer da edo zein alderdik osatzen dute ezker abertzalea?

Goienkaria
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Irabxe Bengoa, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Kirol ikastaroak 2004

Debagoieneko Kirol Zerbitzuak gertu du aurtengo ikastaroen egutegia

Gaur egungo dantza, irristaketa, spinninga, igeriketa teknikak, eta abar. Askotariko ikastaroak antolatu ditu, aurtan ere, Debagoieneko Kirol Zerbitzuak.

Ikastaro horiek ibarreko herrietan egingo dituzte, eta Debagoieneko herritar guztiak har dezakete parte. Mankomunitateko txartela dutenek gutxiago ordaindu beharko dute, eta interesatuta daudenek azkar ibili beharko dute izena emateko.

Oñatin, esaterako, spinning ikastaroak antolatu dituzte, lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetako ikastaroak. Guztiak Zubikoa kiroldegian izango dira. Lehenengo mailari dagokion ikastaroa martxoaren 13an egingo dute. Goiz eta arratsalde egingo dute ikastaro hori. Hala ere, ez dira etengabe bizikleta gainean jo eta ke ibiliko. Teoria eta praktika atalak ditu ikastaroak, eta spinningeko irakasle izan nahi dutenendako antolatu dute,

bereziki. Euskaraz egingo dituzte ikastaroak. Horrez gainera, entrenamendua pultsometroarekin jarraitzeko ikastaroa eta triatloilarietara zuzendutako igeriketa ikastaroa ere Oñatin egingo dituzte.

Aretxabaletako kiroldegian, bestalde, ondo irristatzen ikasteko aukera egongo da. Oraindik ez dituzte egunak zehaztu, baina herriko kirol zerbitzuen telefonora deituta informazio osoa jaso ahal da.

DANTZA ETA ESTRESA

Gaur egungo dantza ikastaroa Bergaran egingo dute, Martinez de Irala gimnasioan. Dagoeneko hasi da, baina beste talde bat sortzeko aukera dago oraindik, eta epea zabalik dago. Estresari aurre egiteko ikastaroa ere antolatu dute Bergaran: datorren hilean hasiko da, yoga egiten den toki berean. Ez dute egunero egingo, eta egun zehatzak jakiteko hobe da kirol zerbitzuko telefonora deitzea.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Oñati	943 71 63 75

Ikastaroen egutegia

Ikastaroa	Datak	Prezioa txartelarekin	Prezioa txartel barik	Gutxieneko ikasle kopurua	Orduak	Herria
Entrenamendua pultsometroarekin	Martxoaren 17tik 20ra	-	-	-	6	Oñati
Gaur egungo dantza	Martxoaren 2tik apirilaren 7ra	24 euro	27 euro	8	13	Bergara
Spinninga - 1. maila	Martxoaren 13an	45 euro	54 euro	8	8	Oñati
Spinninga - 2. maila	Maiatzaren 29an	45 euro	54 euro	8	8	Oñati
Spinninga - 3. maila	Urriaren 9an	45 euro	54 euro	8	8	Oñati
Irristaketa	Martxoa - Maiatza	20 euro	20 euro	12	9	Aretxabaleta
Estresaren kontrakoa	Apirilaren 14tik maiatzaren 21era	60 euro	80 euro	10	18	Bergara
Igeriketa teknikak (triatloilariendako)	Maiatzean	-	-	-	-	Oñati



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

aaz

Xabier Sarasua

Ainhoa Larrañaga

Pilar Etxaniz

Gerardo Carrere

Txaro Arribas

Ainhoa Beola

Zure botoa / Vota

aralar

zutik

euskal herria ezkerretik

Podiuma

Kirolabur

Aritz Bikuña | BOCCIA JOKALARIA |

OIHANA ELORZA

Boccia txapelketa jokatu da asteburu honetan Asturiasen, eta Aritz Bikuña bergararrak Euskadiko Selekzioarekin hartuko du parte. Donostiako Altzako kiroldegian kontzentratu ziren taldeko bederatzikideak eguaztenean, eta irabazteko asmoz doaz Oviedora.

Lehen aldia da Euskadiko Selekzioarekin jokatzen duzuna. Urduri zaude?

Ni baino urduriago daude etxeokak. Ni neu, egia esan, nahiko lasai nago, agian, Euskadirekin jokatzen dudana lehenengo aldia delako, baina oraino, lasai nago, bai.

Zer duzue jokoan?

Gainontzeko kiroleretan bezalaxe, hemen ere dominak ematen dituzte, urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak. Horrekin batera, lagunaren adar-jotzea ere jokoan dago. Lan ona egiteko esan didate, eta gauzak ez badira ongi ateratzen, ba pentsa, hila-bete inguru ibiliko dira adarra jotzen.

Baina lan txukuna egiteko asmoarekin joango zara, ezta?

Bai, bai, noski. Bide batez, lagunak egiteko aukera ere izango dut, eta irabaziz gero, baita domeka eguerdian sagardoa edateko ere. Asturiasera joanez gero, gurako nuke hango sagardoa probatu. Badakizu kirolariok ez dugula alkoholiik edaten lehiari gabiltzan bitartean, baina txapelketa bukatzen denean, agian aukera izango dugu, probatzeko bakarrik bada ere.

Nolakoa izango da asteburuko txapelketa hori?

Gu egubakoitzean goaz, autobusean, eta txapelketa zapatuan eta domeka goizean izango da. Guztira lau partidua jokatuko dira, eta pilota zuriari ematen dio-



OIHANA ELORZA

Ipintza institutuan entrenatzen da Aritz, martitzenetan eta eguenetan.

“Boccian jarduteko, indarra baino garrantzitsuagoa da distantziak kalkulatzeko bista ona izatea”

nak irabazten du partidua. Partidu bakoitzean, lau aldiz bota behar dira pilotak, eta partaide bakoitzak sei ditugu. Batzuen pilotak gorriak izaten dira, eta besteenak, urdinak. Gorriak hasten dira beti. Bi mailatan lehiatuko gara: taldeka eta banaka.

Eta zein da irabazteko duzun estrategia?

Pilota zuriari eman behar zaio. Horretarako, batzuek pilota gorriak erabiliko ditugu eta beste batzuek, urdinak. Kontua da aurkariaren pilota zurira asko hurreratzeko bada, zuk lehiaki-

dearen pilota urrundu behar duzula. Beraz, estrategia da, zure pilota zuriaren aurrean kokatzeta. Modu honetan, lehiakidea zure pilota urruntzen saiatuko da, eta litekeena da zure pilota ukitzea, eta horrek, aldi berean, pilota zuria, eta partidua zuk irabaziko duzu.

Amagoia Arrieta ere zurekin doa, ezta?

Bai. Amagoia izatez Debakoa da, baina elkarrekin entrenatzen gara hemen, Bergaran. Hark askotan hartu du parte Euskadiko Selekzioarekin; hortaz, nik baino esperientzia handiagoa dauka.

Zein aholku eman dizu?

Lasai joateko esan dit. Talde onena Euskadikoa dela, eta lasai joateko. (Kar, kar, kar).

Gaixo ere egon zara. Zer moduz zaude orain?

Bai. Joan den asteburuan sukarra izan nuen, eta etxean egon nintzen. Jarabea hartzen jarraitzen dut oraindik, baina indartzen ari naiz. Dena dela, boccian jarduteko, indarra baino garrantzitsuagoa da distantziak kalkulatzeko bista ona izatea.

Aspalditik jokatzen duzu boccian?

Duela hamar bat urte hasi nintzen. Gero, denbora batez albo batera utzita ere izan dut, eta duela urtebete inguru berriro hasi nintzen. Gainontzean, eslalomean ibiltzen naiz, igeriketan eta atletismoan ere bai.

Beraz, Olinpiar Jokoetara joateko moduan zaude.

(Kar, kar, kar). Hori gehiegi esatea izango litzateke. Badaude ni baino askoz hobek direnak. Asturiasen izango dira batzuk, eta horien aurka lehiatu beharko dut.

Asteburuan txapelketa eta astelehenean, buelta lanera.

Beharko, ze erremedio.

MENDIKO SURFA/DEBAG.

Mendiko surfaren segurtasun ikastaroa antolatu du, apirilerako, Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak. Ez da ohiko snow ikastaroa, baizik eta goi mendiko segurtasun surfari begira prestatutako ikastaroa. Pirinioetan egingo da, apirilaren 3an eta 4an. 14 ikaslerentzako tokia bakarrik dago, eta izena emateko epea zabalik dago. Ikastaro horretan parte hartzeko, ezinbestekoa da mendian federatuta egotea.

MENDIA/ELGETA

Euskal Mendizale Federakundeak ezohiko batzarra egingo du zapatu arratsaldean, 15:30ean, Elgetako frontoian. Landuko diren gaien artean, Federazioa jartzea, Federakundearen ordez, Euskaltzaindiak aholkatuta. Horrez gain, joan den urteko balantzea eta 2004. urteko aurrekontuak, egitasmoak eta elkarkidetzak hitzarmenak aurkeztuko dituzte.

ZIKLISMOA/GATZAGA

Dorletako Ama txirrindulari Eskolak taldeen aurkezpenean egingo du zapatuan. 10:30ean, lore eskaintza egingo diote Amari, santutegian, eta eguerdian, taldeen aurkezpenean egingo dute herrian. Joan den zapatuan egin behar zuten, baina elurrak behartuta, bertan behera utzi beha izan zuten.

ARKULARIAK/OÑATI

Salako zazpigarren ligako laugarren jardunaldia jokatu da Zubikoa kiroldegian, domekan, 17:30ean hasita. Hau ere astebete atzeratu zuten, elurragatik.

PILOTA/BERGARA

Iker Azagirre bergararrak Euskadiko Liga Txapelketa irabazi zuen egubakoitzean Laudion, 22-16, hain zuzen. Elgetako Ozkarbi elkartearen jokatzen du Ikerrek.



URKIOLA

HELBIDE BERRIA
Barrenkalea 13 BERGARA



GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2004



ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

ETXE MOBEL

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3
Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA

ELEKTRAGAILUAK

Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



expert

FAGOR

Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko martxoaren 5a

Kultura
eta
aisialdia



Martxoaren
5etik 12ra

200 URTEREN OSTEAN... KANT!

Immanuel Kant ardatz hartuta, literatura eta filosofia lotuko dituzte VI. Literatura Astean

Martxoaren 8an hasi eta 12ra bitartean, Literatura Astearen VI. aldia egingo da Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzan. Aurten gai nagusia izango da Literatura eta Filosofia, eta horretarako antolatzaileek kontuan izan dute aurten bete dela bigarren mendeurrena Immanuel Kant filosofoa hil zela. Bost egunean, hitzaldiak, solasaldiak eta testuen irakurketak egingo dituzte, idazleen eta gizartearen arteko loturak sendotzeko asmoz.

Badira sei urte Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Literaturaren Astea antolatzen hasi zela. Hasierako asmoetan garrantzitsuena izan zen idazleak fakultatera hurbiltzea, idazleak ikasleen eskura jartzea, lehen eskuko informazioa jaso zezaten.

Denborarekin, geroz eta garrantzitsuago egin da ekimena; jende asko inguratzen da, eta kalitateari dagokionez ere, goi mailako idazleak ekartzeko ahalegina egin dute urtero. Aurten ere izen handiko idazleak egongo dira Eskoriatzan: martxoaren 8an, Fito Rodriguez idazleak egingo du lehenengo hitzaldia. Kanten aurkezpen orokorra egingo du; martxoaren 9an, Ignazio Aiestaranek Kanten argi eta itzalak erakutsiko ditu; martxoaren 10ean, Laura Mintegi idazleak egiarekiko konpromisoaz eta beharraz egingo du berba; eta, azkenik, martxoaren 11n, Joxe Azurmendi filosofo eta idazleak eta Jon Sarasua irakasle eta idazleak solasaldia egingo dute, *Meditazioa Modernoaren Heriotzaz* izenburupean.

Idazle ezagunekin batera, fakultateko ikasleek ere izango dute lekua: martxoaren 12an, hainbat testu irakurriko dituzte ikasleek, Literatura Unibertsitate hartuta, Kantenak eta eurek sorturikoak. *Filosofia Bizitzaz, Heriotzaz eta Amodioaz* izenburua jarri diote errezitaldiari. /USOA AGIRRE /15

Gu bagara 'Asteleheneko Goienkaria'-ko harpidedun. Egin zaitez zu ere!



JOSEBA LASAGABASTER |
ERRETIRATUA,
ARETXABALETA

“Gustura jasotzen dugu etxean. Azken zenbakiak elurretan ateratako argazki asko ekarritzen, eta denei begira egon nintzen. Inguruko herrietako nobedadeak ere jasotzen ditu, eta pozik irakurtzen dut”.



ROBERTO MAIZTEGI |
DISEINATZAILE
GRAFIKOA, OÑATI

“Egia esan, ez naiz prentsa asko irakurtzekoa, baina hurbileko berriak betiere interesgarriak dira; beharbada nire alde *kotilla* izango da, baina tira. Bestea bezalaxe, hau ere etxean jaso nahi nuen”.



OSKAR ELIZBURU |
AEK EUSKALTEGIA,
ARRASATE

“Poztu egin gara asteleheneko hutsune nabarmen hori bete duelako. Lkasleekin sarri jorratzen ditugu egunerokotasuneko gaiak, eta aldizkari honek asteburukoak lantzea errazten digu, euskaraz”.



MIREN KARMELE IPARRAGIRRE |
LANGILEA,
ANTZUOLA

“Elurraren inguruko informazio oso zabala ekarri du azkeneko zenbakiak. Asteburuko gertaera guztiak dakar, eta hainbat argazki koloretan datoz. Kirolzalea ere banaiz, eta atal hori pozik irakurtzen dut”.




IMANOL BOLINAGA |
EAJ-KO KIDEA,
BERGARA

“Abantailak baino ez diot ikusten egitasmo honi. Batetik, kultura mailan oso lan aipagarria egiten du. Eta bestetik, euskaldunon izaera eta nortasunari begira, euskaraz lan egiten duen proiektua da”.



JON MIKEL LARRAÑAGA |
IRAKASLEA,
OÑATI

“Aurrerapausoa da, duda barik. Gainera, astelehenetan ez zegoen aukerarik euskaraz prentsa irakurtzeko, eta honek ondo betetzen du hutsune hori. Informazioa argazkiz ilustratuta dakar”.



MARKOS LABAIEN |
ERRETIRATUEN
ELKARTEA, BERGARA

“Oso ondo ikusten dut egitasmo berria, benetan. Herriko notiziak eta ingurukoetakoak ekartzen ditu GOIENKARIAK, eta orain, asteburukoak bakarrik ez, baita asteburuetan gertatzen direnak ere”.



AMAIA LARRAÑAGA |
IRAKASLEA,
ARRASATE

“Ez nuen zalantzarik izan, eta berehala eman nuen izena. Ibarrean asteburuan gertatzen diren berriek ez zuten tokirik gainontzeko egunkarietan, eta hutsune hori ederki bete du aldizkari berri honek”.



MAITE ORTIZ DE ZARATE |
IRAKASLEA,
ARETXABALETA

“Hasieran, GOIENKARIAri mesede baino gehiago kalte egingo zio- la iruditzen zitzaidan. Baina gero, azalpenak entzun nituenean, iritzia aldatu nuen. Orain, garbi ikusten dut bestearen osagarria dela”.



JULIAN GEZALAGA |
ILE APAINTZAILEA,
ANTZUOLA

“Hasi besterik ez da egin, baina oso harrera ona izan du. Ile apaindegian, beste edozein egunkari baino lehena- go hartzen du GOIENKARIA jendeak, eta honek inguruko notizia gehiago dakartza”.



JOSE LUIS ELKORO |
ERRETIRATUA,
BERGARA

“Egitasmo berri honek informazioa zabaltzen du, eta hori aberasgarria da herritarrontzat. Hurbilago eta zabalago eskaintzen du informazioa, eta hori, duda barik, ona da. Produktu ona dela uste dut”.



MIGEL FREIRE |
ETEKO KAFETEGIA,
OÑATI

“Asteburuan gauza asko gertatzen dira, eta honek denen berri ematen dizu. Hemen, aste osoan erabiltzen dute astekaria, batetik bestera. Ibarreko ikasleek ez ezik, baita kanpotik datozenek ere”.



DAVID BAÑARES |
LANGILEA,
ESKORIATZA

“Elurrak utzitako argazki asko ekarri ditu azken zenbakiak, eta asko gustatu zait. Bestela ere, oso erraza da irakurtzeko, eta ondo ilustratuta etortzen da. Egubakoitzekoa eta hau, biak jasotzen ditugu”.



AGURTZANE ELKORO |
AZK KOMUNIKAZIOA,
ARETXABALETA

“Euskararen normalizazioan aurrerapausoa da. AZK enpresarako erakusleho ona da, publizitatea aurkezakegulako, badakigulako lan horiek enpresan eta gizartean indarra izango dutela”.



GARBIÑE ORMAETXEA |
KIROLDEGIA,
ELGETA

“Oso ondo iruditu zitzai- gun egitasmo berria, eta harpidetza betetzea erabaki genuen. Orain ikusten dut guri bakarrik ez, jende askori gus- tatzen zaiola, tabernan izugarri irakurtzen da, bertakoa da-eta”.

Astekoak



Elurra hizpide

Elurra teiltatuetan, autoetan, espaloietan, errepideetan... Elurra non-nahi. Elurra izan da azken egunotako protagonista. Askok disfrutatu egin zuten elurrarekin, baina, oro har, elurrak arazoak sortu zituen. Gurean, errepidean ez hainbeste; bai, ordea, argi mozketak direla-eta. Izan ere, hainbat herritan argi barik egon ziren zapatu eta domekan. **Antzuolan** batez ere larria izan zen arazoa, 28 ordu jarraian argi barik egon ziren-eta ia herri guztian. Arazoa domeka gauean konpondu bazuten ere, astelehen goizaldeko elurteak argi barik utzi zituen berriro ere antzuolarrak.

Elurteak arazoak sortu dizkie, era berean, baserritarrei edo auzo goietan bizi direnei: **Angiozarren, Elosun, Basalgon, Bedoñan, Udalan, Araotzen, Marinen, Mazmolan** eta ibarreko beste hainbat auzotan asteburuan etxetik irten barik egon dira.

Arazoak sortu ditu, era berean, astebururako iragarrita zeuden hainbat ekitaldi bertan behera geratzeraino: **Elkarriren** sinadura bilketa, preferente mailako **Aloña** eta **UDA** taldeen arteko futbol derbia, **Koldo Amestoy** ipuin kontalariaren emanaldia...

Elurrak arazoak sortu zituzkien, baita ere, **Asteleheneko Goienkaria**-ko erredakzio taldekoei. Izan ere, hasierako planak eta kontaktu guztiak alde batera utzi eta, azkar-azkar inprobisatu egin behar izan zuten. Hala ere, arazoak arazo, zenbakia astelehen goizean kalean zen, eta elurra izanda asteburuko protagonista, elurteak geurean utzitako argazki piloa zekarren, elurragatik, banaketa atzeratu egin zen arren herri batzuetan.

Elurra teiltatuetan, autoetan, espaloietan errepideetan... Elurra non-nahi

LITERATURA/ LITERATURA ASTEA HUHEZI-N

Literatura eta filosofia bat eginda

MARTXOAREN 8TIK 12RA BITARTEAN LITERATURA ASTEAREN VI. ALDIA EGINGO DUTE HUHEZI-N, 'LITERATURA ETA FILOSOFIA' GOIBURUPEAN

USOA AGIRRE

Urtero goiburu bat bilatzen diete literatura jardunaldiak Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Iaz erotismoa izan zen ardatza; aurten, berriz, filosofia izango du protagonismoa. Izan ere, aurten da bigarren mendeurrena Kant filosofo handia hil zela.

Aurten jardunaldien VI. aldia bada ere, duela lau urte hasi ziren Literatura Astea gai baten inguruan antolatzen. 2001ean izan zen *Errealitatea Idazlearen Esku Artan*; 2002an, *Literatura eta Umorea*; eta iaz, *Literatura eta Erotismoa*. Aurten, *Literatura eta Filosofia* izango da goiburua, Immanuel Kant filosofo alemaniarra hil zela bigarren mendeurrena bete delata. Mundu mailan hainbat ekitaldi antolatu dituzte bigarren mendeurren hori aitazaki hartuta; HUHEZIn Literatura Astea antolatu dute, Udako Euskal Unibertsitatearekin lankidetzan.

Hitzaldiak izango dira nagusi Literatura Astean, baina hitzaldiez gain, solasaldiek eta testu irakurketek ere izango dute lekua: Joxe Azurmendi eta Jon Sarasuaren solasaldia izango da eguean; eta ikasleen errezitaldia egubakoitzean.



Unibertsitateko ikasle eta irakasleez gain, ibarreko jende ugari ere hurreratzen da Literatura Astea.

SOLASALDI FILOSOFIKOA

Azurmendi eta Sarasua modernitatea eta postmodernitatea zer diren azaltzen saiatuko dira solasaldian. Jon Sarasuak azaldu digunez, Azurmendik gidatuko du solasaldia. "Azurmendi ni baino

jantziago dago gai honetan eta ni kontrapuntua jartzen saiatuko naiz; beste belaunaldi batena eta esperientzia batena izan daitezkeen ideiak emango ditut".

Egubakoitzean, ikasleentzako txanda izango da. Literatura Astea

pausaleku izaten da fakultateko ikasleendako, eta ikasleentzako ahotza entzunarazteko aukera izaten da. Aurtengoan, hainbat testu irakurriko dituzte ikasleek: Kantenak, Literatura Unibertsitateko eta eurek sorturikoak.

Bi mende Kant barik

Immanuel Kant 1724an jaio zen Königsberg herrian, Alemanian. Hil, berriz, herri berean, 1804an, duela berrehun urte, hain justu ere. Ez zen ia inoiz Königsbertik atera, hark uste zuen eta bidaiarik egin barik ere ezagut daitekeela mundua.

1740an, teologia ikasten hasi zen, baina matematika eta fisikarekin zaletu zen. Zenbait urtez familia bateko maisu gisa ibili zen lanean, doktoretza egin zuen arte. Hamabost urtez irakasle izan zen unibertsitatean, eta ospe handia lortu zuen. 1760tik aurrera egiten hasi zen Leibnitz-en filosofiaren kritika, garai hartan Alemaniako unibertsitateetan nagusi zena. 1770ean lortu zuen Logika eta Metafisikako katedra, eta hasi zen bere teoriak moldatzen. Kanten filosofia sistema ezagutzaren kritikak sortu zuen, eta bere obrak eragin handia izan du Mendebaleko filosofian.

FITO RODRIGUEZ / IDAZLEA

"Kanten 'modernitatea' kolokan dago"

Fito Rodriguez idazleak emango dio hasiera Literatura Asteari Kant, Modernitatearen Maisua hitzaldiarekin.

Zergatik jarri diozu izenburu hori zure hitzaldiari?

Kanten garai batean bideratu zuen *modernitatea*, hau da, mundua ulertzeko eta munduaren aurrean jarrerak hartzeko baliabide sistema oso bat kolokan dago gaur egun. Kanten *modernitatearen* alde epistemologikoa, etikoa eta politikoa formulatu zituen. Horretan oinarritu da Mendebaleko gizarteak azken bi

mendeotan. Gizabanakoetan oinarritutako ikuspegi errepublikarra azaltzen du Kanten. Horrekin batera moral oso bat sortu zen; munduan edozein lekutan egonda ere, gizarteak berdina jokatuko behar du.

Hezkuntzaren zientzia ere Kanten ondorioz sortu zen.

Kanten *Pedagogia* izenburupean hitzaldi bat egin zuen, eta hortik sortu zuen gero bere ordezkari izango zen Herbart-ek *Pedagogia*, hezkuntzaren zientzia. Kanten planteatu zuen lehen aldiz hezkuntzaren beharra. Orduan aurrera, hezkuntza nolabaiteko erlijio zibil bihurtu zen. XIX. men-

deko Europan eta XX. mendeko Espainian ahalegin handiak egin ziren arazo guztiak hezkuntzaren bidez konpontzeko. Legitimitate egin zen hezkuntza.

Gaur egun, ordea, hori guztia kolokan dago.

Orain ez da pentsatzen gizabanakoa berdina dela testuinguruetatik kanpo, munduko leku guztietan. Gaur egun uste da moral eta etika aldakorak direla; esaten da gizakiak ez duela identitate bakar bat, identitate ezberdinak osatzen dituela. Postmodernitatean ezberdintasuna da balio nagusia, Modernitatean berdintasuna zen bezala.



Fito Rodriguez.

Hitzaldiak eta beste

MARTXOAREN 8AN, 19:00ETAN

Fito Rodriguez: 'Kant, Modernitatearen Maisua'.

MARTXOAREN 9AN, 19:00ETAN

Ignazio Aiestaran: 'Kanten Argiak eta Itzalak'.

MARTXOAREN 10EAN, 11:30EAN

Laura Mintegi: 'Intelektual Kantiarra Munduari Beha'.

MARTXOAREN 11N, 19:00ETAN

Joxe Azurmendi eta Jon Sarasua: 'Meditazioa Modernoaren Heriotzaz'.

MARTXOAREN 12AN, 11:30EAN

Fakultateko ikasleak: 'Filosofia Bizitzaz, Heriotzaz eta Amodioaz'. Hainbat testu irakurriko dituzte.

943 71 24 25



MEMESA SL
Industri hornidurak

www.memesa.com

Martxoak 5-12

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

MUSIKA

ARRASATE

- **Iraina eta Zuldor** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.
- **Des-Kontrol, Ardi Galduak eta Brigada Criminal** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.
- **Tronboi, bonbardino eta tuba** kontzertua egingo du Arrasate Musikalek martxoaren 9an, martitzena, euren eskolan, 19:15ean. Iker Olazabal izango da zuzendaria.
- **Tronpeta eta fliskorno kontzertua** egingo du Arrasate Musikalek eguenean, hilak 11, euren eskolan, 18:30ean, Edorta Ayastuik zuzenduta.

BERGARA

- **Extorsion** taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.
- **Wildsavages, Rojo omega eta Vice R Vanit** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.
- **Parabellum, Commando 9mm, Segismundo Toxicomano, Boikot, M.C.D. eta 37 Hostias** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 21:00etan. Sarrerak 15 eurotan salduko dituzte; 12tan, alde zuzenetik erosiz gero.

DEIAK

ANTZUOLA

- **Udalekuetarako izenemate epea** zabalik dago, bai umeendako, bai eta begirale moduan parte hartu nahi dutenendako ere. Argibideetarako, jo udalera.

ARAMAIO

- **Lawrence de Arabia** filma eskainiko dute gaur, egubakoitza, liburutegian, 22:30ean. Sarrera euro bat kostatuko da.
- **Sorginen gaineko hitzaldia** egingo da martitzenean, hilak 9,

kultura etxean, 18:30ean.

- **El otro lado de la cama** filma ikusteko aukera egingo da eguenean, hilak 11, zineman, 18:30ean.

ARETXABALETA

- **Aralar-Zutik** koalizioak hitzaldia egingo du eguaztenean, hilak 10, Udaletxeko ganbaran, 19:00etan. Pilar Etxaniz, Xabier Sarasua eta Richard Irazustak egingo dute berba.
- **Euskal Herriko sorginen** inguruko hitzaldia egingo du Alizia Stürtzek hilaren 11n, eguena, Udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ARRASATE

- **Berto saioa** eskainiko dute Andoni Egaña, Ainhoa Agirreazaldegia, Aitor Sarriegi eta Miren Artetxek bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 13:00etan.
- **Zuhaitz landaketa eguna** egingo dute gaur, egubakoitza, Uribe auzoan, 10:00etan. 6. mailako ikasleek eta erretiratuek parte hartuko dute.
- **Aralar-Zutik koalizioak** bi ekintza antolatatu ditu martitzenerako, hilak 9. Atzeritartasun legearen inguruko hitzaldia egingo dute Jai Zale tabernan, 11:30ean; 19:00etan, taldearen aurkezpena egingo dute Monterronen.
- **58ko kintoeak** ospakizuna egingo dute martxoaren 27an, eta izenemate epea zabalik dago hilaren 21era arte. Horretarako, deitu Jose Riviereri edo Pedro Fernandezi.
- **Emakumearen Eguna** dela-eta, *Emakumeon eskubideen alde, elkartu bideak* leloarekin agerraldia egingo dute astelehenean, hilak 8, Seber Altube plazan hasita, 19:00etan.
- **Emakumeak eta inmigrazioa** delako hitzaldia egingo dute Celina Pereda (Harresiak Apurtuz) eta Marta Eugenia (Munduko Emakumeak) adituek eguaztenean, hilak 10, Emakume Txokoan, 18:00etan.

BERGARA

- **Zazpi lizar** landatuko dituzte Bergarako proposamenaren bultzatzaileek bihar, zapatua, Zurradero pareko zelaian, 11:00etan.
- **Hauteskundearen gaineko berbaldiak** egingo dituzte Bergarako proposamenaren aldekoek hilaren

10ean eta 11n, Angiozarren eta Osintxun, hurrenez hurren, 19:30ean.

DEBAGOIENA

- **Elkarri mugimenduak** sinadura bilketa eguna egingo du bihar, zapatua. Egun osoan egingo dira mahaiak kalean: 11:00-13:30 eta 18:30-20:30.
- **ESK sindikatuak** kale bilkura egingo du astelehenean, hilak 8, Emakumearen Eguna dela-eta. Oñatiko Foruen Plazan izango da, 12:00etan.
- **Ekitaldi politikoa** egingo du Debagoieneko Batasuna inguruko ezker abertzaleak hilaren 9an, martitzena, Bergarako Novedades aretoan, 19:30ean. Euskal Herri osoko hainbat hizlarik hartuko dute parte.

ESKORIATZA

- **Txina, dragoia ernatzen delarik** diaporama eskainiko dute Jon Abril eta Asier Gogortzak eguenean, hilak 11, kultura etxean, 19:30ean.

OÑATI

- **Hezeguneen gaineko hitzaldia** egingo du Mikel Estonba biologiako gaur, egubakoitza, Natura Eskolan, 19:00etan.

- **Aralar-Zutik koalizioak** aurkezpen ekitaldia egingo du bihar, zapatua, katean, 13:00etan. Driptiko banaketa eta beste hainbat ekintza egingo dituzte.
- **Hainbat ekitaldi** egingo dituzte Bergarako ekimenaren bultzatzaileek bihar, zapatua. Goizean, EHNA tramitatzen egongo dira gaztelekuan (11:00-13:30); arratsaldean, Donostia-ko ekitaldi politikoa parte hartuko dute, 17:30ean. Domekan eta astelehenean, propaganda banaketa egingo da Foruen Plazan, 19:30ean. Eguenean, hilak 11, batzarra egingo dute kultura etxean, 19:00etan; eta egubakoitzean, hilak 12, bideo emanaldia Arrano elkartearen, 19:30ean.
- **Baloretan hezi** hitzaldia egingo du Hilario Garrudo psikologoak astelehenean, hilak 8, eta eguaztenean, hilak 10, Txantxiku Ikastolan, 18:30ean. DBHko gurasoei dago zuzenduta.
- **Euskara sexista al da?** hitzaldia egingo du Amaia Alvarez Uria filologoak hilaren 9an, martitzena, gaztelekuan, 19:30ean. Elkar Heziko DBHko ikasleek antolatuta dute.
- **Elikaduraren inguruko hitzaldia** egingo da eguaztenean, hilak 10, 0-4

urte bitarteko umeen gurasoendako. Santa Eskolastika ikastetxean izango da, 18:30ean.

- **Odol-ateratzeak** egingo dituzte datorren egubakoitzean, hilak 12, Txantxiku Ikastolan, 18:00-20:00.
- **Bizikletazale talde batek** bi ekintza antolatuta ditu: hilaren 9an, martitzena, hitzaldi bat, kultura etxean, 19:00etan; eta hilaren 11n, eguena, bizikletazaleon mahai ingurua, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

IKASTAROAK

ARRASATE

- **Gizonezkoendako tailerra** antolatuta dute Emakume Txokoak martxorako. Hilaren 13an izango da, eta gaia, maskulinitate eredu berriak. 10:00etatik 13:30era izango da jardunaldia. Izenemate epea zabalik dago eguenera arte, martxoak 11, Emakume Txokoan. Argibideetarako, deitu 943 79 41 39 telefonora edo idatzi emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net helbidera.



► KONTZERTUAK

U.F.O. ETA ULI JON ROTH, ZUZENEAN, ETZI BERGARAKO JAMEN

Londresen, 1969an, hasi zen U.F.O. taldearen ibilbidea, eta orain, 35 urte geroago, indarberrituta datoz, Vinnie Moore gitarratzaileak eta Jason Bonham bateria jotzaileak taldearekin bat egin ondoren. Lehenengoak bakarkako hainbat lan zituen; bigarrena Led Zeppelin-eko John Bonham-en semea da. Horrenbestez, Phil Mogg, Pete Way eta Paul Raymond beterranoen talde eraberrituak disko berria du: *You are here*. Horixe aurkeztera etorriko dira Bergarako Jam aretora etzi, domeka. Uli Jon Roth-ek ere joko du; askoren esanetan, inoiz izan den gitarra jotzaile eraginkorretariko bat. Scorpions talde alemaniarreko sortzaileetako bat izan zen. *Metamorphosis of the seasons* bere azken laneko doinuak eskainiko ditu.

Non: Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** martxoak 7, domeka. **Ordua:** 20:00etan. **Sarrerak:** 24 euro.

Txinatar jatetxea
**DRAGON
ORIENTAL**



EGUNEKO MENUA

Lehenengo platera
Udaberri-erroiloa entsalada txinatarrarekin.
Eta abar
Bigarren platera
Ku-bak hiru deliziarekin
Arroz-fideo frijituak ganbekin
Eta abar
Hirugarren platera
Ganbak banbuarekin eta perretxiko txinatarrarekin
Ahatea labean
Eta abar

Prezioa: **6,95 euro**

Edariak:
ardoa, ura, garagardoa edo freskagarriak.
Postrea:
platanu frijituak, piña frijituak, izozkia
intxaurrekin. Kafea edo tea.

Araba etorbidea 3 ARRASATE



ZUHAITZ AZOKA EGINGO DUTE BIHAR, ZAPATUA, OÑATIN

Ingurumen Asterako antolatutako egitarauaren barne, Zuhaitz Feria antolatu dute Oñatiko Natura Eskolak eta Baserritarren Elkarreak. Bihar, zapatua, izango da, Oñatiko Foruen plazan, 09:00etan hasita. Denetarikozuhaitz motak ikusteko eta erosteko modua izango dugu: koniferak, fruta arbolak, Euskal Herriko espezieak, zuhaitz apaingarriak...

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Biodibertsitatea** erakusketa ikusteko aukera izango da Monterronen, martxoaren 15era arte, astegunetan, 18:00etatik 20:00etara.

OÑATI

► **500 milioi urte Euskal Herrian** erakusketa dago zabalik Natura Eskolan, martxoaren 21era bitartean. Ordutegia: astegunak, 18:00-20:00; zapatuak: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta domeka eta jaiegunak: 12:00-14:00.

LEHIAKETAK

BERGARA

► **X. Txorimalo lehiaketa** deitu du Jardun euskara elkarteak. Edozeinek har dezake parte, bakarka zein taldeka. Izena emateko mugaguna martxoaren 26a da, eta Jardunen egin beharko da, edo 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefono zenbakian.

JAIK

BERGARA

► **Santu Martirien eguna** ospatuko dute Osintxun bihar, zapatua. Denetarikoz ospakizunak egongo dira egun osoan zehar.

OÑATI

► **Zuhaitz feria** egingo dute etzi, domeka, Foruen Plazan, 09:00etan.

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► **Ugaztun baten nahiak** antzezlanaren eskainiko du Teresa Lopez de Muniain aktoreak etzi, domeka, eskolan, 19:00etan.

ARAMAIO

► **Ya te digo** antzezlanaren eskainiko du Las Torpedo Level taldeak astelehenean, hilak 8, kultura etxean, 18:30ean.

BERGARA

► **Cien años de perdón** antzezlanaren eskainiko dute Bittor Amilibia eta Alvaro Oliver aktoreek bihar, zapatua, Nahikari tabernan, 00:00etan.

ESKORIATZA

► **La recordadora** antzezlanaren eskainiko du Virginia Imazek astelehenean, hilak 8, kultura etxean, 18:00etan. Emakumearen Eguneko ekintzen barne antolatu dute.

Zinema

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

Extranjeras
Egubakoitza, hilak 5, zinekluba: 20:30.

Las chicas del calendario

Zapatua eta domeka: 19:00, 22:00.

Astelehena: 20:30.

Elf

Domeka: 17:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ NOVEDADES

Las invasiones bárbaras

Egubakoitza: 22:30.

El jurado

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

La vida que te espera

Eguena, zinekluba: 20:00.

OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

El jurado

Egubakoitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

Betizu izar artean

Zapatua eta domeka: 17:00.

Las hermanas de la Magdalena

Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ UNZAGA

Doce en casa

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

Casa de arena y niebla

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ GURIDI

Monster

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Lost in translation

Egubakoitza: domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

Las voces de la noche

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Kill Bill

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Cold mountain

Egubakoitza: domekara: 16:45, 19:40, 22:30.

Las invasiones bárbaras

Egubakoitza: domekara: 20:30, 22:30.

La joven de la perla

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey

Egubakoitza: domekara: 16:45.

■ MIKELDI ZINEMAK

La mansión encantada

17:05, 19:50, 22:35.

Mystic river

17:00, 19:45, 22:45.

Bajo el sol de la Toscana

17:15, 20:00, 22:30.

El último samurai

17:00, 19:45, 22:45.

21 gramos

17:15, 20:00, 22:30.

Ciudad de Dios

17:15, 20:00, 22:30.

Doce en casa

17:30, 20:15, 22:45.

Me llaman Radio

20:00, 22:30.

Prop & Berta (euskaraz)

17:15.

Seabiscuit

17:00, 19:45, 22:45.

Martitzena eta eguena,

ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

Thirteen

Egunero: 20:00.

Vías cruzadas

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Astronautas

Egubakoitza: domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

Zatoichi

Egunero: 17:30, 22:30.

Cachorro

Egubakoitza: domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

Cuando menos te lo esperas

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

21 gramos

Egubakoitza: domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

Big fish

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

■ ABACO-LAKUA ZINEMAK

Buscando a Nemo

Zapatua eta domeka: 16:25.

El jurado

16:30, 19:30, 22:10, 01:00.

Escuela de rock

16:15, 19:15, 22:25, 00:45.

Kill Bill

17:00, 19:30, 22:10, 00:30.

Astronautas

16:20, 18:20, 20:15, 22:20, 00:30.

El último samurai

16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Paycheck

16:45, 19:45.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey

16:00, 19:45, 23:30.

La sonrisa de Mona Lisa

16:25, 19:15, 22:05, 00:45.

Cold mountain

16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Master and commander

22:05, 01:00.

Gauerdiko saioak, bakarrik egubakoitz eta zapatuan.

Eguaztrena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

El señor de los anillos 3: el retorno del rey

17:30, 21:30.

Gothika

12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Cuando menos te lo esperas

17:50, 20:10, 22:35, 00:50.

Kill Bill

12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Lost in translation

12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

El jurado

22:00, 00:20.

Cold mountain

Egubakoitza eta zapatua:

15:30, 18:30, 21:30, 00:20.

Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

El último samurai

18:35, 21:00, 00:00.

Monster

12:15, 15:45, 18:00, 20:20, 22:30, 00:45.

Buscando a Nemo

12:15, 15:40.

La mansión encantada

12:15, 16:20, 18:20, 20:20.

Big fish

12:15, 15:30, 17:50, 20:15, 22:40, 00:55.

El Cid, la leyenda

12:15, 16:30.

Dark blue

12:15, 15:50, 18:05, 20:15, 22:30, 00:40.

Doce en casa

12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Los Reyes Magos

Egubakoitza: 16:40, 18:40, 20:40.

Zapatua: 16:40.

Domeka: 12:15.

Escuela de rock

12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

Looney tunes

12:15, 15:30.

Gauerdiko saioak, bakarrik egubakoitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, bakarrik domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna.

■ ÁBACO BOULEVARD

La mansión encantada

12:30, 16:10, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Cuando menos te lo esperas

12:00, 17:15, 19:45, 22:20, 00:55.

Mystic river: ●●●●● | *21 gramos*: ●●●● | *La joven de la perla*: ●●●● | *Casa de arena y niebla*: ●●● | *El señor de los anillos 3: el retorno del rey*: ●●● |

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

LOST IN TRANSLATION


PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Sofia Coppola.

AKTOREAK: Bill Murray, Scarlett Johansson.

Lost in translation galduta dauden bi pertsonari buruzko komedia tristetia dugu. Ez daude uharte deser-tu baten galduta, hiri zaratsatu baten baizik. Bien artean adiskidantzako oso harreman berezi, polit eta hunkigarria sortuko da. Tokiora edari baten iragar-kia egitera joan den aktore famatuare-na egiten du Bill Murrayk; Scarlett

Johansson-ek, berriz, bi urte ezkondu-ta daraman eta bere senar lanpetua ia ikusten ez duen neska baten rola egiten du. Biak bakarrik, eta elementuen kontra (ulertzen ez duten hizkuntza, kultura eta bizitzeko era desberdinaren aurrean), abandonaturik sentitzen diren pertsonaiak dira. Bi herrialdeen pentsamoldeen artean dagoen aldeagatik, oso dibertigarriak diren eszenak sortuko dira. Horieta, Bill Murray maisutasunez erabiltzen du bere alde komi-koa. Komedia zatiek pertsonaiek jasaten duten isolamendua erakusten digute, baina ez da momentu eta beste herrialde baten izatearen bakardadea, bere bizitza orokorrari buruz erraieran sentitzen duten bakardade existentziala baizik, eta pertsonaiak euren bakardadeaz konturatzen doazen neurrian, filmaren alde dramatikoak agertzen da. Adin des-



berdinak izan arren, emoziozko egoera parekoak jasaten ari diren pertsonaiak dira: bakarrik, aldenduak eta galduta daude eta pixkanaka, elkar ezagutzen doazen neurrian, euren artean estimu handiko harremana eraikiz joango da. Ikuslea, ikusten ari denak bultzatua, harre-

man horretako partaide hunkitua bihurtuko da.

Lost in translation-en itxuraz ezer gutxi pasatzen dela ematen badu ere, barrutik dena pasatzen da. Topaketa txiki batzuen bitartez eta pertsonaiak ia ohartu gabe, sendotzen doan adiskidantzata bati buruz hitz egiten digu. Eta hauxe bera da ikusleari gertatzen zaiona, ia konturatu barik momentu, keinu, isilune eta sentimenduz beterik dagoen istorio honengatik harrapatuta sentitzen da. Ikuslea bihotza lapurtzen diguten pertsonaien konplize bihurtzen da.

Aipatzekoa da Sofia Coppolaren zuzendaritza, baita Scarlett Johansson-en eta Bill Murrayren artean sortzen den kimika berezia ere.

ANTONIO ZABALA

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela handia, sukaldia eta komunak. Igogailua. Ur beroa eta berokuntza zentrala. Trastelekua. Nahizanez gero, garajea. 665 73 05 22.

Arrasate. Atikoa salgai erdialdean (Maalako Errabala). Guztiz berrituta eta jantzita. 626 53 56 30.

Arrasate. Etxebizitza salgai Etxeostea kalean. Telefonoa: 650 49 99 01.

Arrasate. Olarte kalean 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Prezio interesgarria. 656 75 71 96.

Arrasate. Erdialdean 12 urteko etxebizitza salgai. 80 m². Hiru gela, egongela, bi komun. Igogailua eta ganbara. Deitu 15:00etatik aurrera. 690 18 11 80.

Arrasaten. Etxebizitza salgai Erguinen, Udalpe kalean. Berehala sartzeko. 647 29 93 44.

Bergara. Etxebizitza salgai Bolun. 92 m². Erdialde inguruan apartamentu txiki bat onartuko nuke tratuan. 653 71 44 25.

Bergara. Etxebizitza salgai, Zubiaurren. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugelak ditu. 943 76 71 12.

Somo (Kantabria). Etxebizitza salgai. 80 m². Bi logela, sukaldia, egongela, terraza, garajea eta trastelekua. Badiakoa bista zoragarriak ditu. Nekane. 605 74 26 60.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza errentan Arrasaten. Bi logela, egongela, komunak eta sukaldia. Berogailua. 630 79 30 13.

Chiclana (Cadiz). Etxebizitza ematen da errentan. Leku ezin hobean. Hondartzatik oso-oso gertu. 670 37 71 03 edo 945 25 91 74.

Chiclana (Cadiz). La Barrozan bi apartamentu ematen



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Simon Arrieta 70 m². Gertu.
• Masterreka 95 m². Oso ondo.
• Bolu 75 m². Egoera onean.
• Zubiaurren.
• Alkabieta 88m². Terraza 58m².
• Matxiategi 60 m². Ondo.
• Ozaeta 60 m². Berria.
Antzuola:
• Sagasti auzoa. 90m². Berria.

BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Osinbun, Angiozarren, Soruluzen eta San Juanen.

dira errentan, urbanizazio berri baten. Leku zoragarria. Hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Eskoriatza. Etxebizitza ematen da errentan. 645 70 36 63.

Eskoriatza. Logelak ematen dira errentan. 645 70 36 63.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 656 76 97 75.

105. ETXEA OSATU

Bergara. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Etxe handia eta garbia. Espalioan. 605 77 51 82.

Bergara. Logela bat ematen da errentan. 678 37 51 92.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai Ibargarain. 655 74 34 14.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garajea salgai Larrea aldean. Auto birendako lekua. Deitu 21:00etatik aurrera. 946 81 94 51.

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEA OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garaje bat hartuko nuke errentan Kale Zaharra edo inguruetan. 600 57 50 93.

3/ LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Debagoieneko herrietan 120 m²-ko lokalak hartuko nituzke errentan. Erdialdean. 606 54 00 12.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Goiz eta arratsaldean. Iluntzean deitu. 626 30 89 36.

ARETXABALETA

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN TABERNAN LAN EGITEKO. 647 05 42 75

BERGARA

ALTZARI DENDA BATERAKO LANGILEA BEHAR DA. DEKORATZAILA TITULUA KONTUAN HARTUKO DA. 615 73 70 87 CV BIDALI: 14 PK, 20570 BERGARA

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. 659 82 75 18.

Arrasate. Neska gazte bat aste bukaeretan lan egiteko gertu. Jone. Telefonoa: 943 79 93 64.

Arrasate. Orduka lan egiteko gertu dago emakume bat. 943 79 99 38.

Bergara. Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu, arratsaldean edo gauetan. Telefonoa: 660 91 94 23.

Bergara. Igeltzerotzan edo beste gremioren baten peoi lan egiteko gertu nago. 680 46 38 86.

Bergara. Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko, arratsaldean. Telefonoa: 653 71 79 03.

Bergara. Neska lanerako gertu. Etxeko lanerako edo atariak garbitzeko. Telefonoa: 696 84 19 51.

Bergara. Neska prest garbitzeko egin eta zaharrak zaintzeko. Fatima. 660 92 01 32.

Debagoiena. Emakume bat gertu dago etxeko lanak egiteko eta haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. 941 21 00 07.

Debagoiena. Mutil gazte euskalduna lanerako gertu. 659 82 75 18.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Ingeleseko ahozko eskolak jasotzeko nirituzke, jatorrizko hitzun batek emanda. 652 76 70 12.

Marraketa eskolak jasotzeko nirituzke. Goi mailako moduluak. 680 35 75 29.

ARRASATE

PERTSONA BEHAR DA ILE APAINDEGIRAKO. 676 22 33 18

ARAMAIO

ZERBITZARIA BEHAR DA. 686 06 72 97

OPARIAK

MARGOLANAK ETA ESKULTURAK SALGAI. ARTISTAREN ESTUDIOAN BERTAN. OPARI EZIN POLITAGOAI! 943 76 25 54. BALENTZIAGA15@terra.es

ARETXABALETA

TABERNA-JATETXEA ERRENTAN EDO SALGAI. EGUNEAN 60-70 MENU EMATEN DIRA. 943 77 21 24 696 02 42 10

ESKORIATZA

TABERNA ESKUALDATZEN DA. SUKALDEA ERABILTZEKO AUKERA. UNIBERTSITATE ONDOAN. 635 71 47 70

502. EMAN

Arrasate. Zientzietan lizentziaduna dagoen gazte batek eskola partikularrek emango lizkieke Lehen Hezkuntzako, DBHko edo Batxilergoko ikasleei. Arrasaten edo Aramaion. Telefonoa: 943 79 94 09 edo 669 94 66 13.

Bergara. Iluntzeetan eskola partikularrek emango nituzke. Lehen hezkuntza edo DBHko. Telefonoa: 669 94 76 20.

Debagoiena. Enpresa Zientzietan lizentziaduna eskola partikularrek emateko gertu. Baita Kontabilitatea, Matematika, eta abar ere. Maila guztiak. Telefonoa: 943 79 09 52.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroën Saxo 1.1i autoa salgai. SS-AZ. Oso ondo dago. 677 54 98 94.

Saab 900 2.3i Coupe autoa salgai. Berde iluna, 1994koa. 170.000 km. Gurpil berriak ditu. Oso ondo dago. 943 79 40 44 edo 626 94 16 75.

Seat Alhambra 1.9 salgai. TDI, 110 zaldi. 1999. urtekoa, gris metalizatua, 7 eserleku, kristal ilunak, ohea muntatzeko egitura... 615 70 05 11.

Seat Toledo autoa salgai. 1993koa. 140.000 km. 1.200 euro. 652 76 40 31.

Suzuki GS500 E motoa salgai. Beltz-morea. Osagarriak. Ondo dago. 658 74 42 70.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Setter arrazako txakurkumeak salgai. 15:00etatik aurrera deitu. 943 78 70 64.

Yorkshire Terrier txakurkumea salgai. Pedigreea. Arra. 2004ko urtarrilaren lauan jaioa. 17:30etik aurrera deitu. Mari Jose. 943 79 76 77.

704. BESTELAKOAK

Bergara. Txakurak edukitzeko txabola aproposa salgai. Bergarako erdialdean kokatua. 655 74 80 07 edo 943 76 99 76.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bideokamera baten piezak salgai: objektiboa, mikrofonoa, bisorea eta argi-babes-ki. Canon XL15 da kamera. Estreinatuta barik. Prezio onean. 667 02 64 87.

Butaka saltzeko daukat, relax motakoa. Hankak luzatzeko automatikoa da. Prezio onean. Asier edo Itziar. 617 17 15 88 edo 659 81 59 15.

Mendiko bizikleta salgai. Decathlon. Berri-berria. 300 euro. Kaskoa eta bizikletan ibiltzeko arropak prezioaren barruan. 943 79 68 78.

Ordenagailua salgai. T2130CS Toshiba eraman- garria. Kanpoko CD-ROMa ere badauka. 678 47 43 54.

Pianoa salgai, Yamaha Klabinoba markakoa. Berri-berria. Prezio onean. 943 77 13 59.



Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

**943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)**

806. GALDU

Aretxabaleta. Otsailaren 15ean, domeka, poltsa txiki beltz bat galdu nuen. Gameboy bat eta joko batzuk zeuden barruan. 635 20 78 98.

Arrasate. Otsailaren 28an (zapata), gauean, ezkontza-erantzuna galdu nuen. "Maider 2003/5/17" jartzen du. Aurkitu duenak dei egin diezadala, mesedez. 605 71 31 01.

Arrasate. Udala aldean Olympus makina digitala galdu nuen. Poltsa beltz baten sartuta. 943 79 35 44.

Oñati diru-zorroa galdu nuen astelehenean, hilak 23. Harkaitz. Telefonoa: 610 36 39 94.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutilak. Gay naiz, eta mutilak ezagutu nahi ditut. Bakarririk sentitzen naiz. Lotsatia naiz: posta elektronikoz hasi nahi nuke harremana. Helbidea: shekinas212@yahoo.es.

IRAGARKIOFIZIALAK



Aretxabaletako Udala

LAN ESKAINTZA

Denboraldi baterako gizarte langile baten kontratazioa

Eskaerak aurkezteko epea: 20 eguneko epea, iragarki hau argitaratzen denetik.

Titulazioa: Gizarte langilea

Informazio zabalagoa: 943 71 18 62

Aretxabaletan, 2004ko martxoaren 5ean



Bergarako Udala

LAN ESKAINTZA

Bergarako Udalak, lehiaketa-opsizio bidez, prebentziorako erdi mailako teknikari bat kontratatu behar du, aldi baterako eta lan-jardun erdierekin.

Baldintzak:
• Adinez nagusi izatea.
• Unibertsitateko erdi mailako titulua edo parekoaren jabe izatea.
• Euskarazko 4. hizkuntza eskakizuna, derrigorrezkoa.

Instantziak aurkezteko epea: 2004ko martxoaren 15eko eguerdiko 13:30ak arte.

Oinarriak udaletxeko idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2004ko martxoaren 3an.

Alkateak

IRAGARKIOFIZIALAK

UDALTZAINAK

Arrasateko Udalak lan-poltsa bat sortu nahi du, berehala, hainbat UDALTZAIN plaza hornitzeko funtzionario interinoen izaeraz.

Baldintzak:

- Eskola graduatua, LH1, Batxilerra edo baliokidea.
- Gidatzeko B1 baimena

Aurkezteko epea: martxoaren 8tik 22ra arte.

Oinarriak: Udaletxean jasotzeko edo web orrian: www.arrasate-mondragon.org



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Pertsonal Sailsa ■

INFORMATIKA MONITOREA

INFORMATIKA MONITORE bat kontratatu nahi da MONTERRONEKO INFORMATIKA GELARAKO aldi baterako.

Baldintzak:

- LH II informatika, 4 urte pasatu ez direla
- Euskara jakitea, 3. HEren parekoa.

Izena emateko epea: martxoaren 6tik 15era arte (biak barne).

Oinarri-araueak: Udaletxean eta web orrian jasotzeko: www.arrasate-mondragon.org



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Pertsonal Sailsa ■



GOIENKARIA


Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 80 €.

URTEURRENA

Felix
Lizarralde Bedia

Arrasaten hil zen 2002ko martxoaren 3an, 76 urte zituela.

*Zauden tokian zaudela
seguru ez dela
girorik faltako
Elkarrengandik urrun
baina beti gogoan.*



Etxekoak



Maria Melgar Robles
Arrasate • Otsailak 28 • 3,110 Kg.
• **Gurasoak:** Jon Melgar (Arrasate) eta Mireia Robles (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoe-tan.



Ibai Carmona Casquete
Arrasate • Martxoak 2 • 3,060 Kg.
• **Gurasoak:** Eugenio Carmona (Arrasate) eta Pili Casquete (Arrasate). Argazkian, Ibai arreba Glo-riarekin batera.



Iban Sanchez Heis
Bergara • Martxoak 2 • 3,635 Kg.
• **Gurasoak:** Pedro Sanchez (Ermua) eta Ana Heis (Bergara). Argazkian, haurra bere gurasoe-kin batera.



Unai Martinez Arenaza
Bergara • Martxoak 3 • 3,010 Kg.
• **Gurasoak:** Barto Martinez (Ber-gara) eta Edurne Arenaza (Berga-ra). Argazkian, umea ospitaleko sehaskan.

HILDAKOAK

Teresa Unzueta Idigoras. Eskoriatzan, otsailaren 25ean. 89 urte.
Luis Bengoa Eraña. Arrasaten, otsailaren 27an. 81 urte.
Sinforosa Fernandez Gonzalez. Aretxabaletan, otsailaren 27an. 94 urte.
Pedro Aranguren Gabilondo. Bergaran, otsailaren 27an. 57 urte.

Angel Iñurritegi Kastañares. Oñatin, otsailaren 28an. 91 urte.
Natalio Maiztegi Antia. Oñatin, otsailaren 28an. 33 urte.
Maria Larrea Aldanondo. Antzuolan, otsailaren 28an. 86 urte.
M^a Nieves Madariaga Zuloaga. Arrasaten, otsailaren 29an. 69 urte.

URTEURRENA

Mertxe
Goñi Gorriz

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 7an, 12:30ean, Musakolako Santa Teresa elizan, Arrasaten.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Facundo
Sarasketa Ojanguren

Bigarren urteurreneko meza domekan, martxoaren 7an, 12:00etan, Elgetako parrokian.




*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Jose
Arantzeta Zabala

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 7an, 12:00etan, Elgetako parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Maria
Maritxalar Iñurritegi

Arrasaten hil zen 2004ko otsailaren 21ean, 91 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKELA

Natalio
Maiztegi Antia

Beti gure artean.



Ekin Emakume Elkartea

ESKELA

Natalio
Maiztegi Antia

Haren arimaren aldeko meza domekan, martxoaren 7an, 13:00etan, Oñatiko San Migel Goiaingeruaren parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*




LASAGABASTER



www.lasagabaster.com

HITZGEZIDUNAK

Luma

	* Deitura	Adi	Emakume izena
	Klariona	Errota (Ipar)	
	Punta, gailur		
	Zuhaitza		
Ezartzera behartu	Adia		
Zuberoako mendia	Kopia		
			Hidrogenoa
			Eztabaida
* Izena			
Edari alkoholiko			
		Gipuzkoako herria	
		Uztaia	
Nafarroako herria			Roentgen
Zarpailak			Egiptoko jainkoa
Nori atzizkia		Gradu mili-tarra	
Dago		Ala	
		Europioa	
		Bizkaiko herria	
Mugarri			
Loaldi (Bizk)			
			Toki hartan

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

TELEBISTA ZALA-TA

Basarritar bati ekarri zetsen telebista bat. Aren poza!

Programa ederrak ikusi naixan, asi zan botoieri ikutzen martxan ipintzeko.

Etzan, baiña, ezer ikusten. Botoiak alemanez izandatuta zegoen. Tekniko erdeldun batek diñotsa:

- Usted tenga en cuenta que Ein quiere decir Eisen-dido y Aus, Auscuras.

HIJO BASTARDO

Eibarko koadrila batekuak

ziran biak. Bata, gizon jakitxuna eta estudio aundixak eindikua. Bestia, brotxa gordako pintoria. Egun baten eta diskusiñuan ari zirala, esan naixan estudiari familiako ondria zala, au beste au, esan zotsan:

- Ya lo creo, tú eres el hijo bastardo de la familia.

Orduan aserre, gure intelektualak:

- I, txotxo, esaixak konfunditxu gero Goyaren pintzelak ire brotxa txarrixekin!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Oñatiko euskararen zer da 'Etxaok jangoik'?

Lazarragaren eskuizkribu famatua batzuen eta besteen ahotan ibili da azken egunotan. Asteleheneko Goienkarian egindako elkarrizketan Jerardo Elortzak zioen bertako euskarak bazuela Oñatikoarekin harremanik. Lazarragaren idatzia hartu eta begiratu bat ematen badiogu ezezagunak zaizkigun berba pila bat aurkituko dugu. Baina ez dago Lazarragaren idatzira jo beharrik. Kandido Izagirrerren *El Vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes* liburuan datorren honako esaldi hau ere ez da beste herrietakoontzat oso eza-guna izango. Ala bai? Asmatuko zenuke zer esan gura duen?

- Etxaok jaunik (ez zagok janik)
- Etxaok janik (ez zagok janik)
- Etxok jango (ez dik jango)
- Etxaok jateko gogorik (ez zagok jateko gogorik)

Erantzun zuzena: Etxaok janik (ez zagok janik).

SOLUZIOAK



N	A	H	•	O	V	I	B
I	R	R	A	D	E	Z	•
K	•	U	E	•	A	D	
O	B	A	K	•	I	R	•
K	A	R	A	K	A	R	Z
•	R	•	A	L	A	R	•
A	I	A	•	O	D	R	A
O	T	R	E	R	A	L	•
H	•	E	B	E	R	Z	I
N	E	H	U	A	•	E	•
I	N	I	•	T	I	N	
A	R	A	K	L	E	R	
•	E	•	A	•			

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Pozak eta nahigabeak ingurukoek kontatzea ondo dago, baina noizean behin entzun ere egin beharko zenituzke besteren kezka-eta, jendeak badu-eta zer kontaktu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Bidairen bat egitea ondo etorriko litzaizuke; izan ere, txori ugari dituzu buruan, eta gauzak beste ikuspuntu batetik ikusteko balio izango dizu bidaia. Soluzioak behar dituzu.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Iragana behingoz ahaztea komeni zaizu. Ez bakar-tu, ez zaitetz triste egon. Bestalde, autoak matxuraren bat izango du, eta diru kopuru polita utzi beharko duzu kontzesionarioan.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Gauzei hamaika buelta ematen ibili beharrean, jar ezazu martxan horrenbeste maite duzun proiektu hori. Ez egin kasu esaten dizutenari; izan ere, zuk bakarrik dakizu ondo irten ahal den edo ez.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



A zer-nolako astea daukazu aurretik! Alde bate-tik, guztien gain nabarmentzeko gogoz, eta beste-tik, bakarrik egoteko desiratzen. Zuk ikusi.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Lagunen aholkuek berebiziko garrantzia izango dute astean; haiak lagundu egin gura dizute. Zu pozik ikusi gura zaituzte. Ez baduzu gura haien aholkuak zorrotz bete, behintzat kontuan hartu.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Ai, ai, ai, maitemindu egin zarela! Ordua zen, mutil/neska! Poliki-poliki elkar ezagutzen hasi, eta berehala konturatuko zara zure bizitzako amodioa dela.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Bakarrik egon gura duzula? Ba, jai duzu! Izan ere, inoiz baino jende gehiago joango zaizu aholku eta laguntza eske. Ez zaitetz zeurekoia izan eta entzue-zu. Haiet lagunduta, hobeto sentituko zara.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Berba gutxiago eta lan handiago. Horrela, esku artean daukazu proiektu horretan laguntasun handia izango duzu. A, eta argi ibili istripuekin! Zuhurra izan.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Zeure buruaz fidatu, ez besterenaz. Beti inguruko-en esanei fidel... Non dago, bada, zure espazio propioa? Berreskuratu egin beharko duzu, lasaigo bizi izateko. Eta osasunari dagokionez, berri txarra: belarriko, ahoko eta eztarriko minez egongo zara.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Egunerokotasunetik ihes egin gura duzula? Bai, eta beste askok ere! Baina zuk ardurak dituzu lanean, eta ez bazara argi ibiltzen, kaleratu egin zaitzakete. Hortaz, badakizu, zuhur jokatu. Baina dena ez da txarra izango: ligetxoak hamaika izango dituzu.

PISCIS


otsailak 21-martxoak 20



Ezer egin baino lehen ondo pentsatu; izan ere, oso oldarkorra zara eta gauzak pentsatu barik egiten dituzu gehienetan. Baina hanka-sartze larriren bat egin dezakezu, eta gero larrutik ordaindu!



ASTEBUKAERAKO EGURALDIA



ZAPATUA, 6

Egun lainotsua izango dugu; goizean, gainera, euri txikia egingo du, eta 800 metrotik gora, elurra. Tenperaturak behera egingo du. Haizea ipar-mendebaletik ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Lainotsu.
Errioxa: Lainotsu.
Pirinioak: Lainotsu.



DOMEKA, 7

Domekan ere ez zaigu lainorik falta izango, baina euri gutxiago egingo du. Elurra 1.500 metrotik gora egingo du. Tenperaturak gora egingo du. Haizeak iparraldetik joko du.

Nafarroako Erribera: Ostarteak.
Errioxa: Ostarteak.
Pirinioak: Ostarteak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO
TEMPERATURA

2,8° C

ILARGIAREN ALDIAK: MARTXOA



EGUZKIA: MARTXOAREN 7A



URKULUKOURTEGIA

Azkeneko egunotan egin duen elurraren ondorioz, **Urku urtegiko ur mailak gora egin du; aurreko astean %86,41 zen; oraingo astean, berriz, %87,95.**

% 87,9

BEHARREZKOTELEFONOAK

**((112))
SOS DEIAK**

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larri.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 53 47 20
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16

Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34

Laixan / Oñati	943 71 63 11
----------------	--------------

Hondakindegia Alternatiboak

Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegia

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

EUSKARAZKOHEDABIDEAK

GOITB	943 71 23 96 • goitb@goiena.com
Goienkaria	943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com
Arrasate Press	943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com
Berrigara	943 76 03 97 • berrigara@goiena.com
Aretxagazeta	943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com
Goibekokale	943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com
Kontuola	943 76 03 97 • kontuola@goiena.com

Txirritola	943 71 25 11 • txirritola@goiena.com
Ze barri?	943 79 86 21 • zebarri@goiena.com
Kontzejupetik	943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net
Putz	943 79 42 30 • putz@euskalnet.net
Arrasate Irratia	943 71 17 31 • irratia@goiena.com
Oñati Irratia	943 78 26 17 • irratia@oinati.net
Sustatu.com	943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com

Erakunde hauen laguntzaz

Apirilaren 7a baino lehen harpidetzen direnek jasoko dute.

Ipuin liburua doan!
Orain, urte osoko harpidetzaren truke, ipuin liburua etxean doan jasoko duzu.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Hala bazan...
Debagoieneko
plazan.

Goienkaria
astelehenean

Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE
902 36 38 51
943 79 22 93
astelehenekoa@goiena.com
www.goiena.net

HARPIDETZA TXARTELA

Izendetiturak: _____

Helbidea: _____ Tel.: _____

Herria: _____ Kode postala: _____

Posta elektronikoa: _____

Non jaso nahi duzu? Etxean Kioskoan


Beste nonbait* _____

Harpidedunaren kontu korrantea (20 zenbaki):

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Urteko harpidetza: 25 € / 40 ale urtean

*Herrigunetik kanpoko banaketa kasuz kasu aztertuko da.



'Astebete'

EGUBAKOITZA, 5 / 20:30 eta 22:30



'Goienan, Herriz herri'

MARTITZENA, 9 / 20:30 eta 22:30



'Sarrera doan'

EGUENA, 11 / 20:30 eta 22:30



'Iluntzean'

EGUENA, 11 / 21:15 eta 23:15

Euskara elkarten Film Laburren Zirkuitua

Topaguneko Manuel Morenok abian jarri berri duten Film Laburren Zirkuituaren gainean berba egingo du gaur. Asier Altunaren *Topeka* izango da horietako bat. Zuzendari bergararrak bere lanaren gainekoak kontatuko dizkigu.

Gatzagako alkatea elkarrizketatuko dute

Datorren martitzenean, Alberto Gorritibereak Leintz Gatzagako alkate Joxerra Perez izango du Goienan, Herriz herri saioan. Gatzagako kontuez ariko dira eta batik bat agintaldi honetan gauzak zelan doazen azalduko du alkateak.

Bi lagunendako afariaren eta musika disko baten zozketa

Asteburuko hitzorduen eta agendaren berri emateaz gain, azkenaldian afariak eta diskoak oparitzen dituzte *Sarrera doan*-en. Arteaga jatetxean bi lagunendako afariaren zozketa martxoaren 25ean egingo dute. Parte hartzeko zenbakia: 943 71 23 93.

Anjeles Iztueta sailburuari elkarrizketa 'Iluntzean'-en

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Anjeles Iztueta elkarrizketatuko du, hilaren 11n, Aintzane Gardokik. *Iluntzean* saioko giro intimista aprobetxatuz denetariko galderak erantzun beharko ditu sailburuak.

TELEBERRIAK

'Algo pasa con López' estreinatuko dute astelehenean ETB2n

Carlos Soberak aurkezten zuen *La gran evasión* saioa ordezkatuko du Iñaki Lopezen *show* berriak. Saioaren arduradunen arabera, programa dibertigarri, lotsagabe eta ausarta izango da. *La gran evasión*-eko lantalde bera izango du datoren astelehenean estreinatuko duten saioak. Iñaki Lopezek gidatuko duen saioak elkarrizketa eta esketx ugari izango ditu. Gaueko hamarrek aldera hasiko da.

'Jon eta familia' telesaileko atal pilotuaren grabaketa hasiko dute

ETBko telesail izan daitekeen proiektu berri bat jarriko du martxan Pausoka produkzio-etxeak. *Jon eta familia* telesaileko atal pilotuaren grabaketa hasiko da hilaren 8an. Jon eta Itziar dira telesaileko protagonistak, duela hogeitun urte elkarrekin ibiltzen hasitako bikotea eta hiru seme-alabaren aita-amak. Alberto Berzal aktoreak —*Goenkale*-ko Mario— egingo du Jonena; Itziarren rola Leire Zorrotzua kazetariak egingo du.

Greba deitu dute kanpainaren azken egunerako RTVE


UGT eta APLI sindikatuek greba deitu dute TVEn eta RNEn martxoaren 12rako, hauteskunde-kanpainako azken egunerako, alegia. Greba horrekin, hitzarmen kolektiboan izan den haustura salatu nahi dute. Sindikatuen arabera zuzendaritzak ez du nahi langileei berme batzuk ematerik.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Martxoaren 5etik 11ra

EGUBAKOITZA, 5	ZAPATUA, 6	DOMEKA, 7	ASTELEHENA, 8	MARTITZENA, 9	EGUAZTENA, 10	EGUENA, 11
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Iragana gogoratuz Lihoaren, ehunaren eta ehungileen inguruko erreportajea eskainiko dizuegu. 15:30 Lanabesak Elurra izan genuen protagonista joan den astean; makinatxo bat egoera eta irudi utzi dizkigu elurrak. 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean Idoia Zenarrutzabeitia lehendakariordea izango du aurrez aurre Aintzane Gardokik. 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Iragana gogoratuz Lihoaren, ehunaren eta ehungileen inguruko erreportajea eskainiko dizuegu. 15:30 Lanabesak Elurra izan genuen protagonista joan den astean; makinatxo bat egoera eta irudi utzi dizkigu elurrak. 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean Idoia Zenarrutzabeitia lehendakariordea izango du aurrez aurre Aintzane Gardokik. 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Herriz herri 14:30 Berriak 15:00 Herriz herri 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Herriz herri 21:00 Gaurkoak 21:15 Herriz herri 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Herriz herri 23:00 Gaurkoak 23:15 Herriz herri 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean: Angeles Iztueta 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean: Emisio amaiera 23:45 Emisio amaiera
21:15 Soinuz blai			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Herriz herri	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

KAMERAURREAN



"Titin III.a eta Fernando Goñi sasoi betean daude, eta eskuz binakako finala oso polita izango da. Guk ere joko ona egin dugu, eta espero dut finalean egotea".

Aimar Olaizola / Pilotaria
'Berriak' (2004/03/04)



"Emakumeoi legalki gure eskubideak onartzen dizkigute, baina praktikan eskubide horiek behin eta berriz urratzen dituzte. Martxoaren 8ko kartelak horixe adierazten du".

Maite Barreña / Emakume Saileko teknikaria
'Berriak' (2004/03/04)

TELEBEGI / Oihana Elorza

Hamaika

Hamaika izendapen zituen *Erztunen Jauna* trilogiaren azken filmak, eta guztiak eskuratu ditu, hamaika. Hauteskundeetan murgilduta dauden alderdiek ere nahiko lukete kalkulatu dituzten boto kopuru osoa eskuratu. Hauek, hiru ez, lau urterako lana dute jokoan, eta ez da mauka txarra helburuak betetzea.

Hauteskunde kanpaina jarraitzeko ohitura badut, irratian nahiz prentsan. Baita telebistan ere. Gustatzen zait zein alderdik ekitaldiak non egin dituen ikustea, zenbat politikoa eta kide joan diren zenbatzea, nortzuek hitz egin duten ikustea, nola jantzia joan diren ikustea, batak eta besteak dituzten baliabideak konparatzea, botoa eskatzeko erabiltzen dituzten trikimailuei begira egotea. Martxoaren 14ko aukietako izendapenak eginda daude. Orain sariak banatzea falta da. Oscarrak bezalaxe, telebistaz ikusiko dugu. Baina bost segundoko atzerapenarekin hori ere? Estatu Batuetako gertaerek laster pasatzen dituzte mugak.





Euskal Okela, Eusko Labela duen bakarra

EUSKAL OKELA
EUSKO LABELA
KALITATEA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO

BAIMENDUTAKO HARATEGIA

EUSKO LABELA DUEN BAKARRA
Euskal Herrian dauden haragi mota eta marka desberdinen artean Euskal Okela bereizten da. Ez dago besterik hau bezain zorrotza denik, 90 parametro baino gehiago kontrolatzen baititu.

Benetakotasun Etiketa

CROTAL Nº	315615	NACIDO: C.A.P.V. JAIOA: E.A.E.
KROTAL ZK		
FORNITUTAKO PRODUKTUA	EUSKAL OKELA	
	CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO	
HARATEGIA CARNICERIA		
ENV. ONTZ.	19.02.04	N. ONTZ. EDAD. ZK. 10
TIPO MOTA	TXAHALA	PIEZA DATA TXULETAK
RAZA ARRAZA	PIRENAICA	SEXO SEXUA H EDAD ADINA 11
PESOPISUA		IMPORTE / ZENBATERIA
CRUADO EN (ESI) / NON NAZIA	BASERRIA CASERIO	FECHA CADUCIDAD / IRALINDITZE DATA
SACRIFICADO EN (ESI) / NON HILDA	HILTEGIA MATADERO	
DESPEZADO EN (ESI) / NON ZARITUA	HARATEGIA CARNICERIA	
FECHA DE SACRIFICIO / HILKETA DATA	10.02.04	
		ORA 572/49 MANTENEDOR CONSERVADO DE 1 A 5°C PRODUCTO CERTIFICADO

Soilik Harategi hauetan
Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.
Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14

ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1

BERGARA
ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12

ESKORIATZA
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11

OÑATI
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

ILUNTZEAN

Angeles Iztueta solaskide

Eguenean, martxoaren 11n
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz



Atzeskua

USOA AGIRRE

Josu Alonso/ Garraiolaria

Nolatan hasi zinen garraiolari lanean? Beti gustatu izan zait errepidea. Gustura ibiltzen naiz kamioia hartuta hara eta hona.

Hala ere, hasieran ez zinen kamioiarekin hasi.

Ez. Hasieran zazpi bat urte egin nituen autobusa gidatzen. Haurrak, langileak... eramaten nituen. Baina horrek asteburuetan ere lana egitea zekarren: sagardotegietara, Errioxara, Benidormera... Nahiago dut orain nagoen moduan: astelehenetik egubakoitzera lan

egin eta asteburuak jai. Hala ere, oso gogoko nuen autobus gidari izatea.

Egin dituen elurrak ez ziren ederrak izango errepiderako.

Egia esan, abentura hutsa izan da elurrarena. Elurraren alde ona eta txarra bizi izan ditut egun hauetan. Txarra errepidean ibiltzeko; poliki ibili beharra, errepideak egoera txarrean... Ona, berriz, elurretan jolasean ibiltzea; seme-alabekin elurretan jolasten ederto pasatu dut asteburuan. Baina astelehena izugarri txarra izan zen.

Asteleheneko Goienkaria banatzeko zailtasunak izan zenituen.

Gauzez egin nuen lan astelehenean, eta elurra besterik ez nuen ikusi gau osoan. Gatzaga, Elgeta eta Antzuolara ez nintzen iritsi, baina gainerako herri guztietara eraman nuen *Asteleheneko Goienkaria*. Hirugarren zenbakia izanda, ondo banatu nahi izan nuen. Okerrena, ordea, Arrasaten gertatu zitzaidan: etxerako aldapa ezin igota gelditu nintzen!

Zein da lan honetako tresnarik onena?

Telefonoa, dudarik gabe. Goizean jaiki eta telefonotik jakiten dut zer egin behar dudan, zer gauza eraman behar dudan nora.

Zer garraiatzen duzu?

Edozer gauza eramaten dut nire kamioian, eskatzen didaten edozer. Hori bai, guztia legala izaten da.

Zer da beharrezkoa garraiolari ona izateko?

Gure lanean umore ona ezinbestekoa dela iruditzen zait. Umorerik eduki ezean, akabo! Lanean gertatzen zaizkidan arazoak umorez hartu eta aurrera egiten dut.

Zer du berezia garraiolari ofizioak?

Nire lanean ez dut nagusirik, ez dut inor gainean momentu oro zer egin behar dudan esaten didanik. Denbora gehienean bakarrik egoten naiz kamioian. Hala ere, lan guztietan moduan, hemen ere badago pixka bat izorratzen zaituen baten bat, baina hori ere eramaten jakin behar da.

Garraiolariok ez duzue oso fama ona gidarien artean.

Egia esatearren, batzuetan oso gauza itsusiak egiten ditugu errepidean, baina horrek ere badu azalpena: ertzainek, norbaitek presa duela ikusten dutenean, aurrean jartzen diote txapeldun aguretxo bat, geldi-geldi joaten dena.



“Abentura hutsa izan da elurrarena; haren alde ona eta txarra bizi izan ditut”

“Gatzaga, Elgeta eta Antzuolara ez nuen eraman ‘Asteleheneko Goienkaria’, baina gainerako herri guztietan banatu nuen”

“Nire lanean ezinbestekoa da umore ona izatea. Umorea eduki ezean, akabo!”

► Arrasate / 36 urte / GOIENKARIA banatzen du

PIPERRAUTSA

Tortura

Asiko dira salatu dutenak tortura jaso izana polizia-etxeetan. Salaketak gehiago dira Espainiako poliziez, baina badira Ertzaintzaz ere. Askoren artean, hiru irudi ditut nik ahantzezinak.

Lehena da Joxe Arregi, torturaz hila duela hogeitaka urte. Oraindik ikusten dut gorpua, osorik ubeldua, eta entzuten haren hil aurreko hitzak, tortura saiotik bueltan: “Gogorra izan duk”. Bigarrena da Unai Romanoren aurpegi puztu eta desitxuratua. Ikusi izan ez bagenu, sinestezina. Eta hirugarren irudia da Martxelot Otamendirena, kartzelatik irteeran. Birrinduta utzi zuten gizonaren barrua.

Orain epaileak artxibatu egin du Martxeloren salaketa, ez duelako tortura arrastorik ikusi. Izan ere, nola demostra daiteke tortura, ez bada goiko Joxek eta Unai bezala? Baina ez dezagun geure burua engaina. Torturarena ez da polizia gaiztoen kontu soila. Legeak berak sortzen du aukera torturatzeke, baimentzen duenean atxiloketa luze eta inkomunikatua. Zertarako, bestela? Eta agintariek babestu egiten dute tortura poliziei ematen dizkietenean, salaketa eta auzien aurrean, zigorgabetasuna eta dominak.

Espainiakoak erremedio zaila du, ez bada gu hango lege, agintari eta polizien menpetik askatzea. Bitartean, EAEko eta Nafarroako gobernuei exijitu behar diegu neurri guztiak hartzea, atxilotuen egoera ona bermatzeko, hemen eta han. Torturarik ez.

MIKEL IRIZAR

